



HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

HAURTZAROAN EMATEN DIREN BELDURRAK HAUR LIBURUETAN

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Salgado Mogedano, Maider

ESPEZIALITATEA: Haur Hezkuntza

ZUZENDARIA: Etxaniz Erle, Xabier

2021/2022 Ikasturtea.

LABURPENA

Denok dugu beldurren bat, baina haurtzaroan asko dira haurren artean nabarmentzen diren beldurrak.

Ondorengo lanean beldurrari buruzko atal teorikoa landu da, gaien sakondu eta ezagutza berriak eskuratu egin dira. Informazio teorikoa jaso ondoren, ikerketa bat egin da, eta, horretarako, Gasteizko liburutegietako 0-6 urteko haurren beldurrei buruzko liburuak bildu dira. Izan ere, haurrentzako liburu hauen bidez haurren beldurrari buruzko alderdiak sakonago aztertu dira. Zehazki, zer beldur mota ikusten den obran zehar, nor den beldur den liburu pertsonaia, nola islatzen den beldurra, nolakoa den liburuaren amaiera eta nola gainditzen duen protagonista beldur hori.

Ikerketa horren emaitza orokorra izan da kasu gehienetan haurra dela beldur hori duena eta, azkenean, gainditu egiten duena, eta liburutegian ugariak direla haurren beldur mota ohikoenekin lotutako liburuak.

Beraz, ondorio nagusia da haurrak liburu protagonistaekin identifikatuta sentituko direla. Eta literatura oso tresna lagungarria dela beldur horiei aurre egiteko eta emozio hori modu dinamikoan kudeatzen ikasteko. Gainera, literaturak gai eta istorioetan murgiltzea eskaintzen digu, gozamina eta ikastea eskutik helduta datozelarik.

Haur literatura, beldurra, haurtzaroa, albuma, ipuina

RESUMEN

Todos tenemos algún miedo, pero en la infancia son muchos los miedos que destacan entre los niños.

En el siguiente trabajo se ha trabajado en el apartado teórico sobre el miedo, se ha profundizado en el tema y se han adquirido nuevos conocimientos. Tras recibir información teórica, se ha realizado un estudio para el que se han recopilado libros sobre los miedos de los niños y niñas de 0-6 años de las bibliotecas de Vitoria-Gasteiz. De hecho, a través de estos libros infantiles se han profundizado aspectos sobre el miedo infantil. En concreto, qué tipo de miedo se ve a lo largo de la obra, quién es el personaje del libro que tiene miedo, cómo se refleja el miedo, cómo es el final del libro y cómo el protagonista supera ese miedo.

El resultado general de este estudio ha sido que en la mayoría de los casos es el niño el que tiene ese miedo y al final lo supera, y que en la biblioteca abundan los libros relacionados con los tipos de miedo infantiles más comunes.

Así que la principal conclusión es que los niños se sentirán identificados con el protagonista del libro. Y que la literatura es una herramienta muy útil para combatir estos miedos y aprender a gestionar esa emoción de forma dinámica. Además, la literatura nos ofrece adentrarnos en temas e historias, donde el disfrute y el aprendizaje vienen de la mano.

Literatura infantil, miedo, infancia, álbum, cuento

ABSTRACT

We all have some fears, but in childhood there are many fears that stand out among children.

In the following work, a theoretical section about fear has been worked on, the theme has been studied in more detail and new knowledge has been acquired. After having received theoretical information, a study was carried out for which books on the fears of children aged 0-6 years were collected from the libraries of Vitoria-Gasteiz. In fact, these children's books were used to study aspects of children's fears in depth. Specifically, what type of fear is present during the book, who is the character in the book who is afraid, how the fear is reflected, how the book ends and how the main character overcomes this fear.

The general result of this study was that in most cases it is the child who has the fear and, in the end, overcomes it, and that the library is full of books related to the most common types of children's fears.

So, the main conclusion is that children will identify with the main character of the book. And that literature is a very useful tool to combat these fears and learn to manage this emotion in a dynamic way. In addition, literature offers us the chance to get into themes and stories, where enjoyment and learning go together.

Children's literature, fear, childhood, album, tale

AURKIBIDEA

SARRERA	5
JUSTIFIKAZIOA AKADEMIKOA ETA PERTSONALA.....	6
MARKO TEORIKOA	7
3.1. BELDURRA.....	7
3.1.1. Zer dago beldurra kontzeptuaren atzean	7
3.1.2. Beldur motak.....	8
3.1.3. Beldurren aurrean pertsonengan agertzen diren erreakzioak.....	9
3.2. BELDURRA HAURTZAROAN.....	10
3.2.1. Haurren indikatzailak beldur direnean	11
3.2.2. Haurtzaroan nabarmentzen diren beldur motak	12
3.2.3. Haurren beldurren eboluzioa.....	12
3.3. HAUR LITERATURA ETA BELDURRA.....	14
3.3.1. Haur literatura	14
3.3.1.1. Albuma.....	15
3.3.2. Beldurren trataera haur eta gazte literaturan.....	17
3.4. ESTUDIOAK BELDURRA ETA LITERATURARI BURUZ.....	18
4. HELBURUAK.....	20
5. IKERKETA.....	20
5.1. HIPOTESIAK.....	21
5.1.1. Beldur mota	21
5.1.2. Ipuinaren amaiera	21
5.1.3. Beldurraren gainditzeko zertaz baliatu	22
5.1.4. Nork jasaten du beldurra.....	23
5.1.5. Beldurraren errepresentazioa.....	24
5.1.6. Beldurra errepresentatzeko irudien kolorea.....	24
5.2. METODOA	25
5.3. EMAITZAK	29
6. ONDORIOAK.....	35
7. HOBETZEKO PROPOSAMENAK.....	37
8. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK.....	38
9. ERANSKINAK.....	40

1. SARRERA

Gradu amaierako lan honetan beldurraren emozioan zentratu nahi dut, horri buruzko informazio gehiago jaso ahal izateko eta gai honi buruzko ikerketa bat egin ahal izateko. Beldurraren gaiarekin batera, literaturaren gaia ere agertuko da hurrengo lanean.

Literatura lagun dugu txikitatik, eta bizitzako alderdi asko ulertzen laguntzen digu. Literatura sorta oso zabala da, hain zuzen ere zentratuko naizen etapan, haur hezkuntzan haurrentzako liburu asko baitaude, aspaldi idatzitako herri-ipuinetatik hasi eta liburu/ipuin/album berrietaraino.

Lan honetan argi utziko dut komenigarria dela umeekin beldurraren gaia jorratzea. Eta, haurrek beldurrei aurre egiteko eta horiek kudeatzen laguntzeko baliabide bat gomendatuko dut. Baliabide hau literatura izango da, zehazki, haurrentzako liburuak.

Lanaren egitura bederatzi zatitan antolatuta dago, eta horiek lanaren irakurketa eta ulermena erraztuko dute. Lehenik eta behin, zergatik aukeratu dudan gai hau eta ez beste bat justifikatuko dut. Bigarrenik, esparru teorikoan azalduko diren gai nagusiak hauek izango dira: beldurra haurtzaroan, literatura eta literaturaren bidez haurren beldurren tratamendua/kudeaketa. Hirugarrenik, lan honekin ditudan helburuak idatziko ditut. Laugarrenik, azalduko dut zer ikerketa egingo dudan, zer metodo erabiliko dudan horretarako, nik ikerketa egin aurretik ditudan hipotesiak, eta ikerketa egin ondoren, emaitzak jaso eta interpretatuko ditut, orri batzuetan islatuta ager daitezen. Seigarrenik, lan hau egin ondoren ateratzen ditudan ondorioak zeintzuk diren eta nire iritzia eta hausnarketa zein diren idatziko dut. Zazpigarrenik, esango dut zein izan diren nire mugak, eta zeintzuk diren hobetzeko ditudan proposamenak. Zortzigarrenik, lana egiteko kontsultatu ditudan web orriekin batera, bakoitzaren erreferentziak aipatuko ditut. Azkenik, lanaren ulermena errazten duten beharrezko eranskinak erantsiko ditut, eta ikerketa burutzeko erabili ditudanak.

2. JUSTIFIKAZIOA AKADEMIKOA ETA PERTSONALA

Arrazoi akademikoengatik eta arrazoi pertsonalengatik gradu amaierako lana haurren beldurrak haur liburuetan nola islatzen denari buruz egitea erabaki dut.

Zehazki, akademikoki, haur hezkuntzako gradua ikasten ari naiz, eta lau urte hauetan konturatu naiz haurren beldurrak nabarmentzen direla haurren artean. Uste dut ikasgeletan ez dela kontuan hartzen edo ez zaiola ematen eman beharko litzatekeen garrantzia. Horretan sakonduz, ikasgeletako emozioen gaia modu orokorrean agertzen da, baina alde batera uzten diren emozio asko daude. Unibertsitatean eta hainbat ikastetxetako praktiketan izandako esperientzia akademikoko denbora honetan guztian, ikusi eta aztertu ahal izan ditut garrantzi gehien ematen dieten emozioak eta, horregatik, protagonismoa dutenak honako hauek dira: tristura, haserrea eta poztasuna. Horregatik, uste dut haurren beldurraren emozioari ez zaiola ia garrantzirik ematen. Uste dut haurrengan eragina duen gaia dela, eta garrantzi handiagoa eman beharko litzaiokeela.

Pertsonalki, asko interesatzen zait gai hau, gai interesgarria iruditzen baitzait, eta bertan sakontzea eta informazio gehiago izatea gustatuko litzaidake. Karrera zehar ez dugu hainbeste sakondu eta uste dut etorkizunerako nire formakuntzarako ezagutza gehiago izatea honen inguruan garrantzitsua dela. Gainera, nire inguruan ikusi dudak gai bat da, eta garrantzi handiko gaia dela ikusi dut, eta sentitzen dut ez daukadala lehen esan dudak bezala, ez prestakuntzarik, ez baliabiderik, lagundu ahal izateko. Literatura metodo bat izan daitekeela uste dut, txikitatik praktikan jartzea komeni dela ikusten baitut, ezagutzak eskura ditzaten, gai asko uler ditzaten eta, batez ere, goza dezaten. Beraz, uste dut literatura metodo bat izan daitekeela, hurrei beren beldurrekin laguntzeko. Baina, modu dinamikoan, irakurtzen duten bitartean gozatzeko eta, gainera, haurren beldurrei aurre egiteko baliabide gisa erabiltzeko. Horregatik, aukera hau erabili nahi dut gehiago jakiteko eta horri buruz ikertzeko.

3. MARKO TEORIKOA

Lanari hasiera eta justifikazioa ematearren, teorikoki lanarekin erlazionatutako kontzeptuak azalduko dira. Horri esker, gai honetara hurbiltzea eta horretan sakontzea lortuko da, lana ahalik eta aberasgarriena izan dadin.

Alde batetik, beldurra kontzeptua bezala agertuko da eta pertsonak beldurraren aurrean dituzten erreakzioak ere. Eta horrekin batera, nola ulertzen del beldurra haurtzaroan. Horretaz gain, haurtzaroan izaten diren beldurrak eta beldur hauen eboluzioa nabarmenduko dira.

Bestalde, haur literatura zer den eta haurtzaroan beldurrak lantzeak haur literaturarekin duen loturaz hitz egingo da. Halaber, haur literaturan beldurrak lantzeko tresna edo baliabide garrantzitsu bat agertuko da: albuma.

Azkenik, haur literaturako beldurrei buruzko ikerketa bat egon den azalduko da, esparru teorikoa ixteko.

3.1. BELDURRA

3.1.1. Zer dago beldurra kontzeptuaren atzean

Hasteko, beldurra deitzen diogu gure garunak balizko mehatxu bat detektatzen duenean aktibatzen duen alarma-sistema bati. Erantzun erabilgarria eta moldagarria da, eta aldaketak dakartza fisiologian, pentsamenduetan eta portaeran (Avila eta Fullana, 2016).

Philippe Lemenuren ustez, Beldurra emozio bat da, zalantzarik gabe, munduko emozio zaharrena, partekatuena. Gure sustraia da, gugan dago eta gure bizitzan zehar laguntzen gaitu (Philippe Lemenu, in Frankard, Van Nieuwenhoven, Aucouturier, Danneels eta Dezutter, 2004).

Horrez gain, Jean Paul Sartrek (ibidem) esaten zuen moduan, pertsona guztiak beldur dira, beldurrik ez duena ez da normala. Izan ere, beldurra gizakiaren funtsezko ezaugarrietako bat da. Txikitatik heredatzen dugu, agian jaiotzean, jaiotzea, gure amarengandik aldentzea, zalantzarik gabe beldurraren gure lehen esperientzia delako (Frankard, Van Nieuwenhoven, Aucouturier, Danneels eta Dezutter, 2004).

Hortaz, Pelechanok, (1981), esaten zuen moduan, beldurra bizitzan zehar sentitzen den emozioa da, nahiz eta egoera beldurgarriak aldatu egiten diren adinarekin. Garapen biologiko, psikologiko eta sozialak, eboluzio-etapa desberdinek (hautzaroa, nerabezaroa, etab.) berezkoa dutenak, azaltzen du beldur batzuen igorpena eta beste batzuen agerpena ingurunearen eskaera aldakorretara egokitzeko (Pelechano, 1981 hemen aipatua: Mendez, Ingles, Hidalgo eta Garcia, 2003).

Beraz, ikuspegi neurologikotik, beldurra gizakien lehen mailako garunaren nerbio-antolaketaarako modu komun bat da, amigdala aktibatzean datzana, lobulu tenporalean.

Ikuspegi psikologikotik, egoera afektibo eta emozionala da, beharrezkoa organismoa ingurunera behar bezala egokitzeko, eta larritasuna eta antsietatea sortzen ditu pertsonarengan; pertsonak beldurra senti dezake, arrazoi argirik ez dagoela ematen ez badu ere.

Gizartearen eta kulturaren ikuspegitik, beldurra pertsona edo gizarte-erakunde baten izaeraren parte izan daiteke. Beraz, objektuen edo testuinguruaren beldur izaten ikas dezake, ez beldurtzen ere ikas dezake, beste sentimendu batzuekin modu konplexuan erlazionatzen eta harreman estua du kulturaren elementu desberdinekin.

Valdezen ustez, beldurrak bi funtzio garrantzitsu betetzen ditu. Lehenengoa, alarma-seinale gisa jardutean datza, organismoari mehatxatzen dion zerbait dagoela adierazten diona, zegoen oreka edo egonkortasuna aldatzen diona Bigarrenik, beldurrak seinale gisa funtzionatzen du, eta seinale horrek organismoari jakinarazten dio zerbait egin behar dela, egonkortasun- edo autoantolaketa-egoera berri bat aurkitzeko eta egoera horretara egokitzeko, non higadurarik txikiena dagoen, hau da, erakundea gidatzen duen bake- edo oreka-egoera berri baten barruan kokatzen eta egokitzen saiatzeko (Valdez, in Medina, González, Tagle, Fuentes eta Escobar, 2010).

Batzuentzat, gizakiaren beldurrak ez du inolako harreman fisiologikorik, baizik eta ni kontzientearen emaitza da, gure ezagutza-maila zabaltzen duena (Gómez, Daza, Angeles eta Barbabosa, 2021).

1.1.2. Beldur motak

Nahiz eta geroago hurrek hautzaroan izaten dituzten beldurrei buruz hitz egingo dudana, ezinbesteko iruditzen zait beldurrean sakontzea eta orokorrean zein beldur motak aurki ditzakegu aipatzea.

Pelechanoren ustez, (1981, 1984), beldur handia izanez gero, baliteke beldurra edo fobia dela esan nahi izatea. Askotariko beldur-sortzaileak daude: eguneroko esperientzia-elementuak (etxeko animaliak, zirkulazioa, ekaitzak aparatu elektrikoekin), bizi-gertakari estresagarriak (senide eta lagunen heriotza, gaixotasun larria, heriotza sorrarazten dituzten elementuak, (hilkutzak, ehorzketak) eta fenomeno irudikatuak (estralurtarrak), hala nola beldur sozialak (barregarri geratzea, behatuta sentitzea, jendaurrean hitz egin beharra edo jendaurrean erortzea) (Pelechano 1981, 1984 in Pelechano, 2007).

Gizaki batzuk beldur dira animalia, objektu edo egoera batzuen aurrean, eta beste batzuek, berriz, ez dute beldurra: odola, zauri irekiak, gorpuak, heriotza eta heriotzaren sinboloak... lanbide batzuetan ohikoak dira, eta beste batzuetan, berriz, ez dute beldurrik izan behar lanbide horiekin zerikusia dutenentzat; beraz, beldurretan, fobietan eta antsietatean eragin soziokulturala nabarmena izaten da (Pelechano, 2007).

3.1.3. Beldurren aurrean pertsonengan agertzen diren erreakzioak

Whitehead-en ustez, (1994), aurkitu da beldurra oinarrizko defentsa-mekanismo bat dela, eta oso konplexua izan arren, funtsean sentimendu emozional batek eta hainbat aldaketa korporalek osatzen dutela. (Whitehead, 1994 in Medina, González, Tagle, Fuentes eta Escobar, 2010).

Manoni, (1984) eta Ostroskyen ustetan, (2000), honako hauek nabarmentzen dira: bihotz-taupaden areagotzea, sudur-hobien zabaltzea, arnasketako azelerazioa, izerditzea, eta edozein arriskuren aurrean behar den mehatxua edo prestaketa (Manoni, 1984 eta Ostrosky, 2000 in Medina, González, Tagle, Fuentes eta Escobar, 2010).

Pertsonak beldurraren aurrean dituzten erreakzio sakonduz, hiru erreakzio mota nabarmentzen dira.

Lehenik erreakzio fisiologikoak. Erreakzio fisiologikoak adinarekiko independenteak dira eta hainbat aldaketa biokimikok eragiten dituzte, batez ere kateklaminak; adrenalina da ezagunena, noradrenalina, epinefrina eta beste substantzia batzuk deskargatzeak. Aldaketa horiek «ekaitz begetatiboa» deiturikoa eragiten dute, eta honako sintoma hauek osatzen dituzte: takikardia, giharretako tentsioa, dardarak, izerdia, zurbiltasuna, eztarriaren eta ahoaren lehortasuna, urdaileko goragale-

sentsazioa, pixa egiteko eta libratzeko premia, arnasketa azkarra, arnasa hartzeko zailtasunak... Adierazpen horiek intentsitate handiagoarekin edo txikiagoarekin bizi daitezke, eta batzuk edo besteak nagusitzen dira, banakoen eta egoeren arabera.

Pearcen ustetan, (1995), duela gutxiko lan batzuek erakusten dute, halaber, beldur-egoeretan garunaren zati batzuetara odol-fluxua gutxitzen dela. (Pearce, 1995 in Perez, 2000)

Bigarrenik, erreakzio motorrak, Beldurraren aurrean erreaktiboak diren jokabide-ereduek kontraste nabarmena izaten dute batzuetan: mugitu gabe geratzeko edo mututzeko joera gerta daiteke, edo, aitzitik, etsipenezko ihesa, oihuak eta mugimen-asaldura egon daitezke. Azken jokabide-eredu hori lehen erreakzio gisa edo aurrekoa gertatu eta berehala ager daiteke.

Eta hirugarrenik, adierazpen kognitibo-subjektiboak. Barneko pentsamendu eta sentimendu subjektiboak dira, beldurra hautemateko modu desberdinen arabera. Funtsean, arrisku eta mehatxu sentsazio subjektiboak, pentsamenduaren blokeoak, konfiantza-galera, ezintasun sentsazioa eta abar dira (Perez, 2000).

Echeburúaaren ustez, (2000), deskribatutako hiru erreakzio multzoak daude; fisiologikoak, portaerazkoak eta kognitiboak, elkarren artean lotuta daude, eta elkarrekin edo elkarren segidan aurkez daitezke, oso intentsitate ertainarekin edo altuarekin, beldurraren intentsitatearen arabera. Intentsitatea, aldi berean, elkarrekintzan dauden hainbat faktoreren mende dago: estimulu mota, subjektua eta bere sentsibiltate fisiologiko eta psikologikoa, testuingurua, etab. Hau da, aldaketa garrantzitsuak izan ditzakete gizabanako batzuen eta besteen artean eta egoera batzuen eta besteen artean (Echeburúa, 2000 in Perez, 2000).

3.2. BELDURRA HAURTZAROAN

Aurreko puntuan esan dudan moduan, beldurra jaiotzen garen momentutik sentitzen dugu. Horregatik, beldurra haurtzaroan nola bizitzen den azalduko da hurrengo lerroetan.

Beldur batek guztiz mugatu dezake haur bat bere egunerokoan; eskolara joateko, lagunekin egoteko, iluntasunean bizitzeko, aldaketen aurrean... Eta aldiz indar eta ziurtasun

handia senti dezake haur batek beldur bat eraldatzen duenean. Gainera, helduak haurrari eraldaketa hau egiten laguntzen dionean, haurra babestua sentitzen da baina era berean, bere garapenerako garrantzitsuak hain diren autonomia, autoestimua eta esfortzua bezalako aldeak garatzen ditu, eta beldurrekin mentalki baikortasunez bideratuz gero ze lan handia egiten den ikasiko dute (Zabaleta, 2019, 35).

Honekin lotuta, haurren beldurrek lotura estua dute haur bat jaiotzen den muturreko mendetasun-egoerarekin; egoera horrek oso mendekotasun handia eragiten dio amarekiko eta inguruarekiko. Horregatik, haurren beldur asko adinak aurrera egin ahala aldatzen doaz, haurrak bere garapenerako etapa garrantzitsuenak betetzen dituen heinean (Ruiperez, 2006).

King, Hamilton eta Ollendicken ustetan, (1988), ikerketa batzuetan agertzen dira, beldurra eragiten duten gertaera gehien erregistratzen diren bizi-etapetako bat haurtzaroa dela (King, Hamilton eta Ollendick, 1988 in Medina, González, Tagle, Fuentes eta Escobar, 2010).

Mendezen ustez, (1999), hau gertatzen da haurrek beldur-maila edo motaren bat eragin diezaieketen fenomenoei buruz egiten dituzten interpretazioek zerbait islatzen dutelako munduaren haur-ikuskeran non informazio eta esperientzia falta garrantzitsua den (Mendez, 1999 in Medina, González, Tagle, Fuentes eta Escobar, 2010).

Hau da, Valdezen ustez, (2009), egoeren ezjakintasun horren aurrean, haurrak ahulagoak dira, eta ezin dituzte saihestu adin handieneko pertsonen kasuan bezain erraz (Medina, González, Tagle, Fuentes eta Escobar, 2010).

3.2.1. Haurren indikatzailak beldur direnean

Haurrek, beldur direnean, ohi ez bezala erreakzionatzen dute, eta erreakzio horiek inguruko pertsonen atenzioa deitzen dute, ohikoak ez diren portaerak baitira. Nabarmentzen direnak honako hauek dira: Haurra bere portaeran aurreko adinetara itzultzea, esfinterren kontrola galtzea, gorritu edo zurbiltzea hitz egitean, motibaziorik gabe egotea, isolatzea, jarrera pasiboa izan, indarkeriaz jokatzeta, erasokor agertzea eta pasibo agertzea.

3.2.2. Haurtzaroan nabarmentzen diren beldur motak

Haurtzaroan zenbait beldur agertzen direnez, horiek ezagutzea eta hauen inguruan informazioa izatea nahitaezkoa da.

Gauaren, iluntasunaren eta ekaitzen beldur: itzalek, zaratak, bakardadeak, lotarako orduan ohe azpian makurtuta edo armairuan ezkutatuta dauden beldurrak pizten dituzte; are gehiago tximistek hautsitako iluntasuna eta trumoiak hautsitako isiltasuna.

Amesgaiztoek hautsitako ametsak: amets gaiztoen beldurrez bakarrik lo egiteko beldurra, burua astindu eta kopetan izerdi hotzaren arrasto bat uzten duten beldurrak eta mehatxuak; irudimena tonu beltzez betetzen da, iratzartze itogarria eta oihua.

Munstroen eta beste izaki imajinario batzuen beldur: zaku-gizona, sorgina, mamuak, herensugeak, alegiazko munstroen munduan nagusitzen diren pertsonaiak; jazartzen eta zelatatzen gaituzten presentzia kezkarriak.

Animalien beldurra: lau edo zortzi hankako beldurrak, animalien beldurra, txakurrak, otsoak, hartzak edo armiarmak; antsietatea eta mehatxu handien edo txikien aurrean pizten diren panikoak.

Ezezagunarekiko beldurra: basoak, hondartzak, etxaldeak, zer espero den ez dakigun lekuak, pertsona arrotzak eta egoera berriak; esploratu gabeko munduekiko bertigoa, ezagututakoaz haragoko esperientziak eta topaketak.

Beldur intimo eta pertsonalak: gure barnean sortzen diren beldurrak, hazteko edo bakarrik egoteko, fobien edo erruduntasun-sentimenduen ondorioz; tristura dakarten gatazka pertsonalak, emozioak pizten dituztenak eta autoestimua gutxitzen dutenak.

Beldurra gizartean: beldurra besteari eta hura gabe egoteari, abandonuari; beldurra familian, eskolan; kalte fisikoari edo barregarritasunari, bazterkeria-sentimenduak; mehatxuak munduarekin eta besteekin dugun harremanean (Ruiperez, 2006).

3.2.3. Haurren beldurren eboluzioa.

Lehen ikusi dugun moduan, haurtzaroan nabarmentzen diren beldur mota desberdinak aurkitzen ditugu. Hori dela eta, adinaren arabera jakin behar da zein beldur mantentzen diren eta zeintzuk desagertzen diren. Horregatik garrantzitsua da haurren beldurren eboluzioan sakontzea.

Jaio bezain laster, haurrak ondo definitutako beldur-erreakzioak izaten ditu. Erreakzio horiek estimulazio zehatz eta mugatuaren aurrean gertatzen dira, eta egoerak oso ugariak ez diren arren, beldurrezko erreakzioak oso biziak dira. Jaiotzean sortzen den beldurraren erantzunak agertzen dira zarata bizien eta bat-batekoen aurrean, euskarriaren bat-bateko galeraren aurrean eta estimulazio oso biziaren aurrean. Erantzun horiek unibertsalak, baldintzarik gabekoak eta, beraz, filogenetikoak dira.

Sei hilabetera beste beldur-erantzun batzuk agertzen dira, kontzeptualizatuak, aurrekoak bezala, jatorrizkoak eta filogenetikoak. Bat-bateko mugimendu periferikoen eta altuera ikustearen eraginpean gertatzen dira erantzun horiek (Martinez, 1990).

6 hilabetetik aurrera, hau da, bederatzi hilabete inguruan, unibertsalki agertzen da arrotzekiko beldurra, eta bi urtera desagertzen da (Marina, 2012).

Hau da, goikoa laburbilduz, lehenengo urtean, sostengu-galera, zarata handiak, arrotzak eta gurasoengandik bereiztearen beldurrak nabarmentzen dira gehien.

Bigarren urtetik aurrera ohartzen dira animalia batzuek min egin diezaieketela, iluntasuna ez zaiela gustatzen, zauriren bat egiten dutenean larritu egiten direla eta ezezagunak beldurtzen dituela. Horregatik, oraindik ez dute gurasoengandik banandu nahi.

Hiru eta lau urterekin haien beldurrak nabarmenagoak egiten dira. Haien irudimenagatik ilunpetan ezkututzen diren munstroetan pentsatzen eta beldurtzen hasten dira. Kalte fisikoek ere beldurtzen dituzte, eta fenomeno naturalekiko beldurra agertzen da. Hau da beldurra trumoei, haizeari eta lurrikarari (González, 2018).

Bost eta sei urterekin, beste batzuk agertzen dira, hala nola izaki gaiztoekiko beldurra; lapur eta bahitzaileekiko beldurrak. Eta beldurra irudimenezko pertsonaiei ere, sorgin eta mamuei adibidez (Ruiz eta Gomez, 2000).

Ollendick eta Kingen ustez, (1994), beldurrak oso fenomeno arruntak dira haurtzaroan eta nerabezaroan, ezaugarri ebolutiboak dituzte, adinean aurrera egin ahala behera egiten dute, eta ez dira ausaz gertatzen, esanahi biologiko-ebolutiboa dute. Hala ere, garapen ebolutiboaren aldi jakin batzuetan egokitze-helburua izan ohi duten arren, intentsitate handikoak badira, haurraren eta/edo nerabearen jardueretan eta garapenean ere eragin dezakete, baina fobiek baino gutxiago (Ollendick eta King, 1994 in Ausarta, R. M., Sandín, B., Chorot, P., & Tabar, A, 2003).

Mannonien esanetan, (1984), argi dago pertsona hazten eta garatzen doan heinean, ohikoena dela bizitzaz hartzen dituen trebetasun kognitiboek eta esperientziak aukera ematea bere ingurunea hobeto ulertzeko. Ondorioz, beldurrek pertsonarengan izan dezaketen eragina eta kantitatea jaitسي egiten da (Mannoni, 1984), eta horrek, modu hipotetikoan behintzat, beldur gutxiagoz osatutako bizitza izatea ahalbidetuko lioke, baina, hori, jakina, ez da beti betetzen (Mannoni, 1984 in Medina, González, Tagle, Fuentes eta Escobar, 2010).

3.3. HAUR LITERATURA ETA BELDURRA

3.3.1. Haur literatura

Haur-literaturaren kontzeptuari buruz asko eztabaidatu da historian zehar, eta honen adibide da hainbat idazlek esaten dutena. Adibidez, J. Iturrialdek dio: “literatura ona bada, kalitatezkoa, ez du adinik” (J. Iturrialde hemen aipatua: Etxaniz, 1997, 10) eta Patxi Zubizarretak dioenez (P. Zubizarreta hemen aipatua: Etxaniz, 1997, 10) hasieran uste zuen haur edo gazte literatura idaztean estiloa erraztu egin behar zela, metaforek imajinariogoak izan behar zutela. Baina, konturatu da ez dagoela desberdintasun handiegirik eta gainera Andu lertxundik esan bezala, haur literaturan helduen literaturan agertzen diren elementu guztiak errepikatzen dira, bai estiloan, bai metaforan. Andu Lertxundik dio azken finean ez dagoela desberdintasunik eta horrekin oso bat dator.

Bestetik, Felipe Juaristik dio (hemen aipatua: Etxaniz, 1997, 10) helduen literaturak eta gazteenak ez dutela bata bestearekin zerikusirik. Helduentzat idaztean beste hainbat gauza hartzen direla kontuan; idazkera ezberdina da, metafora eta sinboloak ere erabat ezberdinak dira, baita kontatzeko modua ere... Esaten du bi mundu ezberdin direla eta azken finean inportanteena zerbait kontatzea dela eta modua bigarren mailako kontua dela.

Manu Lopez Gasenik, berriz, honako hau dio:

Oraingo liburuak eskaintzen duen salbamendu edo katarsi hori haurrari zuzenduta dago. Gai bera helduentzat aukeratuko banu, beste modu batean egingo nuke kontaketa, modu gogorragoan beharbada. Bestetik, estiloa zaindu behar da. Batetik kontaketa erraza egiten saiatu naiz baina errazkerian erori gabe ((Manu Lopez Gasen hemen aipatua: Etxaniz, 1997, 11)

Beraz, Haur eta gazte literatura, hizkuntza ekintza da, gauzatzeko eman beharreko baldintza: idazleak sortutako testuaren eta testu hori irakurtzen duen haurraren arteko akordioa, onartutako prozedimendu batzuk jarraituz (Etxaniz, 1997).

Honekin batera, Haur literatura guztiz beharrezkoa da edozein kulturatan. Haur horiek, lehenbizi, ahozko tradizioko ipuinak, istorioak, olerkiak, aho-korapiloak, abestiak, jolasak... jasoko dituzte. Gero, irakurketa-idazketarekin hasiko dira eta orduan irakurriko dituzte lehenengo istorio xume eta apalak, euren hazkunde eta garapenari egokituak. Geroxeago, liburu txikien irakurle bihurtuko dira. Eta, poliki-poliki, gero eta historia zailago eta korapilatsuagoak jasotzeko ahalmenez betetzen joango dira (Zubeldia, 2009, 255).

Haur literaturaren kontzeptuari amaiera emateko, Xabier Etxanizek aipatzen duen moduan, eta aurreko lerroetan aipatu dudan moduan, lo-kantak, ipuinak, olerkiak, haur jolasak, aho korapiloak, igarkizunak, etab. Haur literaturak bereganatu dituen elementuak dira. Elementu hauek haurrek bereganatu dituzte eta gaur egun haur literaturaren osagarri garrantzitsuak dira (Etxaniz, 1992).

3.3.1.1. Albuma

Haur eta Gazte literaturaren barruan azken urteotan albumak pisu handia izan du eta bere berezitasunak ikusiko ditugu.

Haurrek liburuekin duten lehen kontaktua irudia nagusi duten ipuinen bidez izaten da. Aurrerago, kode idatzia eskuratu eta historia bat jarraitzeko gai direnean, gero eta lan konplexuagoetan murgilduko dira, non testua eta irudia elkarrekin bizi diren osotasun bat osatuz. Gerta daiteke, eta ohikoena izan da, testua autonomoa izatea eta ilustrazioak lagundu besterik ez egitea; edo irudiak eta testuak informazioa partekatzea; edo ilustrazioak historia ulertze hutsetik haratago doan mezua eskaintzen duen lana izan daiteke (Colomer, 2002:19).

Albuma irakurketa-proposamen berri bat da, testuaren eta irudiaren arteko lotura interdependentea duena. Bata ezin da ulertu bestea kontuan hartu gabe. Album-liburura hurbiltzeko, lehenik eta behin testuaren eta irudiaren arteko erlazio bereziaz hitz egin behar dugu: irudiak hitzak esan ez duena kontaktzen du, edo hitzak irudiak aintzat hartzen ez duena esaten du (López, 2009).

Beraz, album ilustratua haur literatura ikaskuntzaren lehen etapetan hurbiltzeko erabiltzen den baliabide nagusietako bat da (Senís, 2014). Hau da, haurrak literatur unibertsoan eta artearen esparruan sartzeko bi ate daude: lehena helduaren ahotsa da, txikienei kontakizunen berotasuna eta lilura transmititzen diena; bigarrena irudia da, estimulu zuzen eta zirrargarria, forma, kolore eta sentsazio estetikoaren testuinguru baliotsu batean bete-bete kokatzen dituena. Album ilustratuaren balioa literaturaren eta artearen mundu sinbolikoaren hastapenetan dago, behatzeko, irudikatze eta sentitze plazeran (Arellano, 2008).

Diaz-Plajaren ustez, (2002), albuma ezinbesteko bitartekaria da haurren eta munduaren artean, bi kode elkartzen dituen irakurketa-mota jakin batetik abiatuta; bata espaziala, ilustrazioa, eta bestea denborazkoa, Testua. Irudiak testu informazioa zabaltzen duen erlazio bat sortzen du, horrela, irakurlearen, testuaren eta ilustrazioaren arteko elkarrizketa sortzen da, eta horren bidez dimentsio estetiko bat eta gizarte kontzientzia bat daude. Azken horrek gaitasun kritikoa garatzea errazten du, eta hartzailearen hezkuntza areagotzen du, haren epaitzeko eta bereizteko gaitasunari dei egiten dioten erreferenteak eta proposamenak eskainiz (Diaz-Plaja, 2002 hemen aipatua: López, 2008).

Dakigunez, albumetan ilustrazioak paper garrantzitsua du. Izan ere, ilustrazioak bizipeneko pasarteak, eta pertsonaiak buruz ikastea eta gogoan finkatzea errazten du. Era berean, haurren sentsibilitate estetiko edo aurre-estetiko fintzen eta hezten du, eta emozionaltasunari eta afektibitateari hitz egiten die. Horretaz gain, sentimenduak ekartzen ditu gogora, adimena eta fantasia pizten ditu. Aipatutakoaz gain, sormena eta behaketa ere sustatzen ditu, eta, ikusizko proba batean, konparazioa egiten du hartzaileak entzumenaren edo irakurketa autonomia egin ondoren, bere buruan egindako irudiaren, eta artistaren asmakuntza sortzailetik sortutako orrialdean erreproduzitutako marrazkiaren artean; betiere, haur-artearen eta estetikaren kanonei

erantzuten badie, poz iturri da, barne atseginaren iturri, eta, agian, aisialdi estetikoaren iturri (Nobile, 1992).

3.3.2. Beldurren trataera haur eta gazte literaturan

Haur-literaturak haurren sentimenduak eta emozioak biluzik uzten ditu, ezohiko aberastasuna agerian utziz. Helduaren sentipena, haurrak ez duela hausnartzen eta bere sentimenduak mugatuak direla, argi eta garbi desmitifikatzen da. Haurrentzako literatur lanek, hau da, emozio-aukera handiak, sentimendu ugari islatzen dituzte, eta sentimendu horiek tristura, haserrea edo alaitasuna baino haratago doaz. Horrela, obra horietara hurbiltzen den haurrari bere emozioak ezagutzen ikasteko tresna gisa balio diote, emozioak garatzeko eta interpretatzeko gida gisa. Beraz, literatura-lanek hezkuntza-lan oso garrantzitsua betetzen dute, adimen emozionalaren prestakuntzan eragiten baitute, eta hori funtsezkoa da haurraren garapen afektiborako (Macias, 2010).

Txikiei eskainitako ipuinen balioa bizitzari zor diogun zerga baten antzekoa da, bizitzak berarekin baitaramatza irudimena, harridura, hunkipena, zirrara, ezezagun zaigunari beldurra eta, azkenik, garaipenaren poza eta lasaitasuna. Eta irakurketak hau dena eskainiko dio haurrari. Irakurketarekin amets egin dezake haurrak, negar edo barre, errealitatearekin jolastu, bere jakinmina hauspotu, lagunekin bere esperientziak eta sentipenak partekatu (Zubeldia, 2014,187).

Orduan, testu literarioa, eta bereziki haur-narratiba, Michèle Petiten ustez, (1999), haur irakurlearen interakziorako eta alfabetatze emozionalerako plataforma gisa aurkezten da. Izan ere, fikziozko mundua mundu errealaren agerkaritzat jotzean, testuak besteen egoera mentalak izendatzeko eta ezagutzeko aukera ematen digu, baina gure esperientziari ere egotz dakizkiokeenak (Michèle Petit 1999, hemen aipatua: Riquelme eta Munita, 2011).

Beraz, interesgarria da literaturarekiko kontaktu goiztiar eta intentsiboaren ideia indartzea, beste batzuei egoera emozionalak egozteko plataforma gisa, baita norberaren egoerak ezagutzeko eta erregulatzeko aukera ere (Riquelme eta Munita, 2011).

Honetan sakonduz, haur asko narrazioen egoerekin identifikatuta sentitzen dira, eta beste batzuk beldur horien bidez adierazten dituzte beren beldurrak; gainera, haur literaturak errealitatea eraldatzeko ahalmen handia du, emozioak, sentsazioak eta sentimenduak bizi daitezkeen mundu berrien irudimenaren bidez.

Begoña Ibarrolaren ustetan, Espainian gehien irakurtzen den haur-ipuinen egileetako batek, gogorarazi digu ipuinek autoezagutzaren eta kontzientzia emozionalaren alde egiten dutela, nor garen eta, are garrantzitsuagoa dena, nor izan gaitzkeen erakutsiz.

CEU San Pablo Montepríncipe ikastetxera egindako bisitan, Begoña Ibarrolak ipuinek haurren sentimenduak kudeatzeko duten gaitasuna azpimarratu du, naturaltasunez eta arintasunez ulertzen eta hitz egiten laguntzen dutelako norberaren eta besteen beldurrei, atsekabeei edo zorientasunari buruz, bai eta gure eguneroko gatazkei aurre egiten ere, nahi dugun ala ez, emozioz beteta gertatzen baita.

Ibarrolak azaldu duenez, 5 dira ipuinen funtzioak: irudimena eta fantasia suspertzea; entretenitzea eta dibertitzea; irakaskuntza morala transmititzea; egia metafisiko eta filosofikoen ulermena erraztea; eta funtzio terapeutikoa, haurrei gure barne-mundua edo gure gatazkak ulertzeko orientabideak eta gakoak ematean (Begoña Ibarrola, hemen aipatua: *La Razón*, 2019).

Azkenik, Reyes idazleak esandakoa aipatu behar da, bere artikuluan ipuinak denarekin ahal du: haurrei istorio horiek diotena ez da beldurra existitzen ez dela, kontrakoa baizik: existitzen dela, sentitzea baliozkoa dela eta gainditzea ere posible dela. Horregatik, askotan, ipuin bera behin eta berriz entzun nahi dute. Berrito entzutea beldurra uxatzea da, berrito beldurtzera jolastea, hau da, istorioan zehar gako berriak bilatzea, nork bere buruaz pixka bat jabetzen saiatzeko (Reyes in Diaz eta Rojas, 2014).

3.4. ESTUDIOAK BELDURRA ETA LITERATURARI BURUZ

Valladolideko unibertsitatean egindako gradu amaierako lan batean, interbentzio bat egin da, *Koloreetako Munstroa* ipuinari erreferentzia berezia eginez, ondoren, emozio bakoitza banaka azpimarratzeko. Interbentzio hau egin ondoren zenbait ondorioak azaldu dira.

Emozio Hezkuntzaren gaia funtsezkoa da txikienekin lantzeko, euren emozioak eta besteenak ezagutzen eta kudeatzen hasiko baitira. Gainera, eragin onuragarria du garapen emozional eta sozialean.

Bizitzako lehen minututik, denok sentitzen dugu, eta, horregatik, beharrezkoa da haiek aitortzea, kontrolatzea eta kudeatzea. Horregatik, etorkizuneko frustrazioak edo gatazkak saihesteko, emozioak kontrolatzen eta kudeatzen ikasi behar da, une eta egoera bakoitzean nola sentitzen diren ulertu behar da, eta, azkenik, besteen emozioak ezagutu behar dira (Pérez, 2021).

Horietaz gain, Sevillan, lan honetako egileak, haurren beldurrak ipuinen bidez egindako azterketa egin ondoren, ondorio batzuk ateratzen ditu, ondorio horiek azpimarratzea nahitaezkoa da. Psikologiaren alorretik laguntza paregabea da haurrarentzat, bere identifikazioagatik, inplikazioagatik eta larritasunak eta beldurrak bideratzeagatik. Txikiek dituzten kezkek edo beldurrek mundu errealekiko paraleloa sortzeko aukera ematen diete. Eraikitzen duten mundu honen ondorioz, tentsio handiko kliman sartzen dira, urduritasuna baino ematen ez diena, eta kanpoko erantzun edo laguntza bilatzen dute. Laguntza hori ipuinek ematen diete, haiek bizi dituzten egoeren antzekoak erakutsiz, soluzioak emanez eta denak konponbidea duela dirudien fantasiako munduan sartuz.

Ipuinak beldurren ezaugarriak deszifratzeko aukera ematen du, ezinegona sor dezaketen ekintzak, egoerak edo uneak azalduz. Horietako bakoitza aztertuz, protagonistek beldur horiek nola gainditzen dituzten ikusiz, soluzioak, teknikak eta ideiak emanez (Caso Dochado, 2014).

Bettelheimen ustetan, istorioek beldurrei eta larritasunei buruz hitz egitea oso baliagarria dela emozioak ezagutzeko eta,aldi berean, urrutira eramateko azaltzen du. Istorioetan, haurra bere beldurretara ohitu daiteke eta, horrela, arrisku gutxiagokotzat jo ditzake. Horregatik, ipuinek beren beldurrak gutxitzen eta beren mundua ordenatzen laguntzen dute. Ondo aukeratutako ipuin modernoek kontakizunak sugerei eta dragoiei beldur handia zieten 5 eta 6 urteko haurrengan eragin positiboak izan dituela frogatu da: haien beldurrak murriztu egin dira.

Izan ere, irudimenezko mundua oso lasaigarria izan daiteke, batez ere 4-6 urte bitartekoentzat, istorioko pertsonaia gero eta indartsuagoa baita bere beldurra baino (Bettelheim, hemen aipatua: Ferland, 2011).

Sevillako unibertsitatean, lan honen egileak, haur-literaturan beldur mota batzuen azterketa egin du. Azterketa hau egin ondoren, nabarmendu du fantasiarekiko beldurraren kasuan bi aukera aurkitzen ditugula: munstroa garaitzen duen pertsonaiarekiko identifikazioa, batzuetan umoreak edo munstroaren beraren humanizazioak garaipena errazten duena, adiskidetasuna eragiten duen pertsonaiarekiko edo pertsonaiarekiko identifikazioa ahalbidetuz. Azken batean, mehatxatzen gaituena galtzea bilatzen da, dela haurraren ezgaitasunagatik, dela min egiteko gogorik ezagatik.

Besteekiko beldurrari dagokionez, tratamendurako bi aukera ikusiko ditugu berriro: batetik, irakurlea biktimarekin identifikatzea bilatzen duten liburuak, literatura errealitatera eraman eta erasotzaileari aurre egiteko adinako ausardia lortzeko; bestetik, jazartzaile berarekin identifikatzea eragiten duten liburuak, eta egiten ari denaz jabetuta eta damututa agertuko da (Sánchez Ruiz, 2016).

4. HELBURUAK

HELBURU NAGUSIA:

Lan honen helburu nagusia 0-6 urteko haurrek dituzten beldurretarako haur liburua baliabide lagungarria dela erakustea eta beldurrak baliabide honetan nola islatzen den ikertzea da.

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

Helburu nagusia zein den argitu ondoren, beharrezkoa da lan honen helburu espezifikoak zeintzuk diren nabarmentzea.

- Gure inguruko beldurra aktiboki behatzea, arakatzea eta ezagutzea.
- Beldur mota desberdinak identifikatzeko gai izatea.
- Haur liburuen bidez beldur bakoitzari ematen zaion garrantzia jasotzea.
- Nola irudikatzen dituzten beldurrak haur liburuetan aztertzea.
- Beldurraren gaiari heltzen dioten haur-liburu nahikoak ote dauden ikustea eta erakustea.

5. IKERKETA

Haur literaturak haurren beldurrak nola tratatzen dituen aztertu dut. Beraz, ikerketa honetan prozesu bat jarraitu dut. Lehenik eta behin, liburuak aztertu aurretik, haurren liburuetan zer uste nuen arkituko nuela haurren beldurrei buruz idatzi dut, hau da, nituen hipotesiak. Gero, irizpide bat jarraituz, liburu kopuru bat aukeratu eta aztertu egin ditut. Azkenik, aztertu ondoren, datu batzuk atera ditut eta horietatik ondorioak islatu ditut.

5.1 HIPOTESIAK

Liburuak aztertzen hasi aurretik, garrantzitsua da argi uztea zein den nire pentsamendua edo ideiak ikerketa hau egin aurretik. Hurrengo lerrotan agertuko diren hipotesiak nire ikuspuntutik egingo ditut. Hau da, orain arte ikusi dudana haurren liburuetan eta gaur arte irakurri eta jaso ahal izan dudana informazioan oinarrituz. Ikerketa egin ondoren, hipotesiak egiteak aukera emango dit nik ikerketaren aurretik nituen ideiak ikerketatik ateratako datu edo emaitzekin alderatzeko.

5.1.1. Beldur mota

1. HIPOTESIA:

0-6 urtekoen artean gehien nabarmentzen diren beldurrei erreparatzen badiegu. Haurrentzako liburuetan, gehien jorratuko den beldurra iluntasunaren beldurra izango dela uste dut, adin horretako haurrek ilunpetan daudenean babesgabetasun handia sentitzen dutela uste baitut. Horregatik uste dut beldur mota hori gainditzen lagunduko duen tresna bat, zalantzarik gabe, alburua izango dela.

2. HIPOTESIA:

Iluntasunaren beldurraren ondoren, uste dut gehien errepikatuko den beldurra munstroekiko edo irudimenezko beste izaki batzuekiko beldurra izango dela; izan ere, horrelako izaki fantastikoak oso ohikoak dira haurren pentsamenduetan, eta horiek beldur handia eragiten diete; gainera, nire ustez, haurrengan oso ohikoa den beldurra da munstro bat edo lehen esan dudana bezala, beste izaki irudimentsu bat agertzea eta horiek harrapatzea. Horregatik uste dut iluntasunaren beldurraren ondoren hau izango dela gehien errepikatuko den hurrengoa.

3. HIPOTESIA:

Gai honi buruz dauzkan hipotesiekin bukatzeko, haur liburuetan, animalien beldurra gutxien egongo dena, uste dut. Izan ere, haurrengan animaliekiko beldurra nabarmena bada ere, haurrentzako liburuetan oso ohikoa da protagonista animalia baten bidez irudikatzea, protagonista pertsona izan beharrean. Beraz, uste dut ez dela hainbeste haur liburuetan zentratuko beldurra animaliangan.

5.1.2. Ipuinaren amaiera

4. HIPOTESIA:

Liburu gehienetan bezala, batez ere lehen adineko pertsonen zuzenduta daudenetan, amaierak irakurleak entzun nahi dituenak izaten dira, kasu honetan haurrak entzun nahi dituenak. Hau da, amaiera zoriontsua, non liburuaren garapenean gertatzen den arazoa desagertu egiten den. Gainera, horrelako haur liburu gehienen helburua haurrari haur liburuan duen beldurrarekin laguntzea izango dela uste dut. Beraz, nire ustez, gehienetan protagonistak beldurra gaindituko du. Beraz, beldurra onartzen den amaiera zoriontsuak beste edozein amaieraren artean nabarmenduko dira.

5. HIPOTESIA:

Onarpenaren amaiera eta gero, uste dut gehien errepika daitekeen amaiera haur liburuen hasieran ematen den beldurra desagertzea dela, baina beldur berri bat sortzera eramaten duena. Uste dut benetako bizitzan hori asko gertatzen dela, batez ere haurrengan, haurren eboluzioa eta beldurren eboluzioa direla eta. Beraz, amaiera mota hori haurrentzako haur liburuetan ere islatuko dela uste dut.

6. HIPOTESIA:

Gutxien egongo diren amaieretatik, bi motatakoak izango direla uste dut: beldurra onartzen ez duen amaiera, eta, beldurra areagotzen duena. Hau pentsatzen dut, zeren, 4. hipotesian esan dudana berretsiz, haurrek liburu bat irakurtzen dutenean minimo bat itxaroten dute, eta minimo hori haien zatia ondo bukatzea da. Beraz, amaiera haiek espero dutena ez denean edo modu zailean amaitzen den unean, liburuaren helburua beste bat da, baina, ez haurrari beldurra gainditzeko laguntzea. Eta 4. hipotesian esan dudana bezala, haurren beldurrari buruzko liburuen helburua zuzena da, irakurketaz disfrutatzea eta beldurra gainditzeko. Non haurra identifikatuta sentituko den eta beldur hori gainditzeko lagunduko dion.

5.1.3. Beldurraren gainditzeko zertaz baliatu

7. HIPOTESIA:

Nire ustez, beldurra jasaten duen protagonistaren babesik handiena senitartekoa izango da; gainera, benetako bizitzari erreparatzen badiogu, norbaitek arazoren bat duenean, maite duen jendeak laguntzen dio arazoa gainditzeko. Beraz, albumetan, protagonistaren beldurra gainditzeko laguntzailerik handiena familiako pertsona bat izango dela uste dut. Gainera, haur txikiak, beldur direnean, familiarengana joaten dira, babes bila.

8. HIPOTESIA:

Arestian aipatu dudanaren ondoren, protagonistak beldurra gainditzeko inoren laguntzarik ez jasotzea izango da gehien errepikatuko dena. Hau da, berak bakarrik gaindituko du beldurra. Uste dut garrantzitsua dela haur liburu hauek irakurtzen dituzten haurrek, jakinaraztea edo transmititzea haiek bakarrik edozein beldur gainditzeko gai direla; izan ere, esparru teorikoan ikusi dugunez, haurren beldurrak aldatu eta gainditu egiten dira, adinaren arabera.

9. HIPOTESIA:

Protagonista bera bakarrik beldurra gainditzea eta gero, animalia edo familiako kide baten laguntzaz baliatuko dela, beldurra gainditzeko uste dut. Askotan, haurrentzako liburuetan animaliak eta protagonistaren familia agertzen dira. Beraz, kasu askotan, protagonistak animalia edo familiako kide baten laguntza jasoko duela bere beldurra gainditzeko, uste dut.

10. HIPOTESIA:

Nire ustez gutxien agertuko den kasua da protagonistak ezezagun baten edo izaki fantastiko baten laguntza izatea. Hau da, hauek beldurra ematen diete normalean, beraz, ez dut uste haur liburu askotan agertzen direnik bi kasu horiek beldurra gainditzeko laguntzaile gisa.

5.1.4. Nork jasaten du beldurra

11. HIPOTESIA:

Beldur den protagonistari dagokionez, gehienetan haurra izango dela uste dut, liburu bat irakurtzen dugunean pertsonaiaren batekin identifikatuta sentitzea gustatzen zaigulako, irakurketa puntu errealistago batetik bizitzeko. Horregatik, beldurrei buruzko haurrentzako liburuetan, protagonista gehienak haurrak izango direla uste dut, irakurtzen duen haur oro protagonistarekin identifikatuta senti dadin. Horrela, lagungarriagoa izango da haurrentzat, bizitzeko eta beldurra gainditzeko.

12. HIPOTESIA:

Horren ondoren, animalia batek beldurra izango du. 9. hipotesian aipatu dudan bezala, kasu askotan, haur-liburuetan animaliak agertzen dira; beraz, haurra protagonista izanez gero, beldurra izango duen animalia bat errepikatuko da gehien, eta, beraz, liburuko protagonista izango da.

13. HIPOTESIA:

Gutxien gailenduko dena izaki edo elementu fantastiko bat izango dela uste dut. Hau da, benetakoa ez denez, liburua irakurtzean, haurrak sentituko du gutxien identifikatuta. Halaber, uste dut heldu bat ez dela asko agertuko protagonista gisa.

5.1.5. Beldurraren errepresentazioa

14. HIPOTESIA:

Beldurrak irudikatzeari dagokionez, uste dut irudiak testuak baino gehiagotan erabiliko dituztela beldurra adierazteko.

15. HIPOTESIA:

Irudien bidez, oro har, beldurra errepresentatuko dute munstro edo beste izaki imajinario baten bidez. Izan ere, beldurra irudikatzeko pertsonaiarik bisual eta beldurgarriena izango da haurrentzat.

16. HIPOTESIA:

Irudimenezko pertsonaia ondoren, beldurra irudikatzeko gehien erabiliko dena itzala izango dela uste dut. Itzalak beldurra eragin dezake haurrengan. Gainera, itzalen irudiek batzuetan forma bitxiak dituzte eta hauek beldurra sortzeko modu oso eraginkorra dira.

17. HIPOTESIA:

Nire ustez, objektuen bidez eta benetako pertsonengan beldurra ere irudikatuta agertuko den arren, aurreko bi hipotesiekin alderatuta, objektuak eta pertsonaiak ez dira hain nabarmenak izango.

5.1.6. Beldurra errepresentatzeko irudien kolorea

18. HIPOTESIA:

Beldurra adierazteko erabiliko diren irudietan, kolore ilunak (beltza, grisa edo urdin iluna) dira gehien erabiltzen diren koloreak. Uste dut kolore hauek aukera ona direla beldurra adierazteko, irudiari seriotasun handiagoa ematen diotelako.

19. HIPOTESIA:

Kolore horien ondoren, kolore gorria ere nahiko erabiliko dela uste dut, gorria kolore ona izan daitekeelako irudiak beldurra hobeto transmititzen laguntzeko, kolore apur bat oldarkorra izan daitekeelako.

5.2. METODOA

Helburuen atalean esan dudak bezala, lan honen helburuak argiak dira, beraz horietan oinarritu naiz liburuetan aztertu nahi ditudan gaiak ateratzeko. Behin gaiak argi izan ditudanean, aurreko puntuak azaldu dudak bezala, hipotesiak garatu ditut, hau da, beldurrarekin lotutako gai horiei buruzko lan hau egin aurretik nituen usteak. Ikerketa honetan, erabili den metodoa, kuantitatibo da, eta bertan zenbait liburu aztertu ditut. Liburuaren azterketa ondo garatu ahal izateko, beharrezkoa izan da jakitea zein alderdi aztertu nahi ditudan, hau da, non jarri nahi dudak arreta. Horrela, lanaren helburuak eta hipotesiak kontuan izanik, honako fitxa hauek sortu ditut liburuak aztertu eta datuak lortu ahal izateko:

<u>DATUEN FITXA</u>		
LIBURUAREN IZENBURUA		
EGILEA	ARGITALETXEA	URTEA
LABURPENA		
GAIA		

<u>BELDUR MOTA</u>	
BELDURRA ILUNTASUNARI, GAUARI ETA EKAITZEI	
BELDURRA AMESGAIZTOEI	
BELDURRA MUNSTRO ETA BESTE IZAKI IMAJINARIOEI	
BELDURRA ANIMALIEI	
BELDURRA EZEZAGUNARI	
BELDUR INTIMO ETA PERTSONALAK	
BELDURRA GIZARTEAN	
Oharrak:	

<u>AMAIERA</u>					
HASIERAKO BELDURRA AREGOTZEN DA					
EZ DA ONARTZEN BELDURRA					
BESTE BELDUR BATEN SORRERA					
GAINDITZEN DA BELDURRA					
<u>NOLA ONARTZEN DU?</u>					
Familiako kide baten laguntzarekin	Animali baten laguntzarekin	Izaki fantastiko baten laguntzarekin	Bera bakarrik	Ezezagun baten laguntzarekin	Beste bat
Oharrak:					

<u>NOR DA BELDUR?</u>	
HAUR BAT	
HELDU BAT	
IZAKI FANTASTIKO BAT	
ANIMALIA BAT	

BIZIA EZ DUEN OBJETU BAT	
BESTE BAT	
Oharrak:	

<u>BELDURRAREN ERREPRESENTAZIOA</u>		
<u>IRUDI BATEN BIDEZ</u>		<u>TESTUAREN BIDEZ</u>
<u>Irudian zeren bidez errepresentatzen da beldurra?</u>		
IZAKI IMAJINARIOAK		
PERTSONAI ERREALETAN		
ITZALA		
OBJEKTUAK		
BESTE BAT		
Oharrak:		
<u>IRUDIAREN KOLOREA</u>		
<u>Kolore ilunak</u>	<u>Kolore gorrixkak</u>	<u>Ez da iluntzen beldurraren irudia</u>
Oharrak:		

Fitxa horiek bete ditut aztertu dudan liburu bakoitzarekin.

Liburuaren analisiaren prozesuan sakonduz, liburu hauek aukeratzeko erabili dudan irizpidea Gasteizko liburutegietako beldurrei buruzko haurrentzako liburuak aztertzea izan da. Hau da, egin dudana hurrengoia izan da: webgune «liburubila» erabili, eta «bilaketa aurreratua» aukeraren bidez liburuak aurkitu. Zehazkiago, «Bilaketa aurreratua» -n iragazkiak erabili ditut, eta nire liburuaren gaia hauren beldurrak direla jarri dut, artikulua mota liburuak dela, hauren liburuak izango direla; 0-6koak, eta azkenik, Gasteizko liburutegiak jarri izan ditut iragazki gisa. Behin, iragazki hauek betetzen dituzten liburuak aurkitu ditudan, agertu zaizkidan liburu bakoitza zein liburutegitan dagoen apuntatu eta bildu ahala aztertzen hasi naiz.

Prozesu honetan, egin beharreko hurrengo urratsa liburuak ondo irakurtzea eta aurrez erantsitako fitxak betetzea izan da. Guztira 42 liburu izan ditut esku artean, eta 37 izan dira aztertu ditudanak, eta honako hauek dira:

- Alcántara, R. eta Gusti. (1999). *Tento eta ekaitza*. Ibaizabal.
- Añorga, P. eta Mitxelena, J. (2015). *Munstroek ere pixa egiten dute ohean*. Pamiela
- Ashbé, J. (2005). *Ilun dago!*. Ttartalo.
- Balmes, S. (2019). *Nik munstroak akabatuko ditut zugatik*. Principal.
- Beñaran, A. eta Beñaran, A.(2018). *Gaxuxaren klarion magikoa*. Xangorin.
- Billet, M. (2018). *Gazela txikia beldur da*. Ttartalo.
- Bruno, P. eta Gubellini, M. (2011). *Nire amonaren etxea*. Txalaparta.
- Canals, M. eta Aguilar, S.(2016). *Super-heroi supersonikoa*. Salvatella.
- Caplain, V. Eta Mabire, G. (2016). *Otsoaren ipuina*. Ttartalo.
- Casadelrrey, F. eta Lima, T. (2010). *Mattinen beldur- kutxa*. Txalaparta.
- Chéneau, V. (1993). *Ez dut lo egingo nire hartzarekin ez bada*. Ttartalo.
- Clarke, G. (1998). *Gorkaren mamuak*. Ttartalo.
- Company, M. eta Horacio, E. (1991). *Xanti eta Ane ateetako zaindariak*. Elkar.
- Delvaux, N. eta De pétigry. (2012). *Kamile eta gaueko amesgaiztoa*. Ttartalo.
- Egurza, A., Garcés, L. eta Mendoza, A.(2014). *Beeeldur naiz*. Ibaizabal.
- Gardá, R. eta Curto, R. (2004). *Ezkutatzea gustatzen zait*. Ttartalo.
- Glitz, A. eta Sönnichsen, I. (2005). *Munstro bat ohe azpian*. Ttartalo.
- Gonzalo, M. eta Grabau, R. (2019). *Dani beldurraren aurka*. Sentir.
- Ibarrola, B. eta Delicado, F. (2018). *Beldurren bezatzaile*. Desclée.
- Isern, S. eta Somá, M. (2017). *Muxarren zazpi oheak*. Mezulari.
- Jadoul, E. (2008). *Oilobustia*. Ttartalo.
- Janisch, H eta Jung, B. (2003). *Ane beldur denean...*Ibaizabal
- Junge, N eta Jandí, E. (2006). *Bosgarrena*. Hiria.
- Kruz, J. (1998). *Jonas eta hozkailu beldurtia*. Aizkorri.
- Lindo, E. eta Urberuaga, E. (2021). *Olivia eta mamua*. Ikasmina.
- Lodge, J. (2011). *Beldurra ematen dizu Kroko?*. Ibaizabal.
- Mayer, M. (2020). *Amets Gaizto nire armairuan*. Kalandraka.
- Monreal, V. (1997). *Zeren beldur zara?*. Aizkorri.
- Monreal, V. (2001). *Gau beldurgarria*. Aizkorri.
- Moses, B. eta Gordon, M. (1994). *Izaturik nago*. Ibaizabal.
- Oli eta Carreiro, P. (1992). *Hona hemen beldurra*. Erein.
- Otegi, I. eta Garaoya, S. (2020). *Lorerik gorriena*. Pamiela.


- Roca, N. eta Curto, R. (2003). *Beldurra, beldurtienetik ausartenera*. Hiria.
- Sanchez, S. (2018). *Alex iluntasunaren beldur*. Ballon.
- Saudo, C. (2018). *Nor zeren beldur da*. Ikas
- Villanueva, C. eta Caballero, P. (2015). *Karlota Marmota oheratzeko orduan adar-joka*. Fortuna.
- Villanueva, C. eta Caballero, P. (2016). *Lili printzesa txikia eskolan beldurtia*. Fortuna.

Lehen esan dudan moduan, hauek ez dira liburutegitik irakurtzeko hartu ditudan guztiak. Hau da, liburubila web orrian agertzen zitzaizkidan liburuetakoz batzuk sei urteko haurrentzako liburuak bezala sailkatuta zeuden. Baina, behin liburuak eskuartean izan ditudanean, ikusi eta irakurri ahal izan ditut, eta arrazoi batzuegatik, adibidez, orri-kopuruagatik eta letra-kopuruagatik konturatu naiz 6 urtetik gorako haurrentzat direla. Interneten begiratu gero, haur hezkuntzako haur helduagoentzako liburu gisa sailkatzen dute. Honako hauek izan dira:

- Aleixandre, M. eta Lázaro, E. (1999). *Akimarro, Sakamarrin eta Mamu*. Elkar
- Añorga, P. eta Mitxelena, J. (2007). *Gerlari handia*. Pamiela.
- Cordova, I. (1993). *Ada ez da inoiz beldurtzen*. Ediciones sm.
- Goñi, L. (2015). *Ilunean argi*. Cenlit.
- Mercer, M. (2001). *Zomorro gaizto maitagarria*. Kalandraka.


5.3. EMAITZAK

Arestian aipatutako liburuak aztertu ondoren, azterketan ateratako datuak bildu eta interpretatu ditut. Horrela, gai honi buruzko datu zehatzak zeintzuk diren jakingo dut, eta hortik atera ahal izango ditut ondorioak.




Aztertutako obra guztietatik, gehien errepikatu den beldur mota iluntasunarekiko, gauarekiko eta ekaitzekiko beldurra izan da, eta 16 obratan ikusi da beldur mota hori. Eta aurrekoaren datu berberekin, hau da, 16 lanetan, gehien errepikatu den beste beldur mota munstro batekiko edo beste izaki imajinario batekiko beldurra da. Animalien beldurra 13 obratan nabarmentzen da. 8 obrarekin, ezezagunarekiko beldurra nabarmentzen da. Beldurra gizartean 7 obratan ikusten da. Azkenik, amesgaiztoen beldurra 6 obratan.

Beldurra eragiten duten elementuen kopurua aztertutako liburuena baino handiagoa da; izan ere, obra askotan beldur mota bat baino gehiago agertzen dira, eta beste askotan beldur mota horiek erlazionatuta daude; adibidez, iluntasunari beldurra diotenean, askotan munstroen eta irudimenezko izakien beldurrarekin erlazionatzen da, iluntasunak eragiten dien beldurrak munstro bat edo beste izaki imajinario bat agertzeko beldurra eragiten baitie.




Aztertutako obra guztietan, 37 lan, protagonistak bere beldurra gainditu edo onartu egiten du. Beraz, liburu guztien asmoa hurrei beldurrak gainditzen eta beldurraren emozioa kudeatzen laguntzea dela ikus daiteke.




Beldurrak gainditzeko, protagonistak behin baino gehiagotan bakarrik gainditzen du, zehazki 16 lanetan. Baina obra kopuru berean, hau da, 16 obratan senide baten

laguntza du beldurra gainditzeko. 5 aldiz animalia baten laguntza jasotzen du, 4 aldiz izaki fantastiko batena. Salbuespen gisa, aurrez aipatutakoetatik bat ere ez diren beste pertsona batzuen laguntza du 2 alditan, eta hauek dira: protagonistaren lagun baten amona eta beste obran lagun baten laguntza. Azkenik, kasu bakar batean ere ez du ezezagun baten laguntzarik jasotzen bere beldurra gainditzeko.


Protagonista nagusiari beldurra gainditzen laguntzen dioten pertsonaien kopurua aztertutako lanena baino handiagoa da, hainbat lanetan hainbat pertsonak laguntzen baitute zeregin horretan.



Aztertutako lan guztietatik 26 liburutan beldurra duen protagonista haurra da, 11 kasutan animalia eta 5 kasutan heldua. Azken datu horri dagokionez, non helduak beldur bat duen, azpimarratu behar da kasu guztiek zerbait komunean dutela, izan ere, obra kopuru honetan haurra da zerbaiti beldurra dion protagonista, baina liburuaren amaieran umorea erabiltzen dute helduaren beldurra islatzeko. Beraz, kasu horietan, heldua ere beldur jakin batekin agertzen da pertsonaia gisa, eta haurra zein heldua ipuinaren protagonista bihurtzen dira. Obretako batean objektu batek du beldurra. Azkenik, beldurra duen pertsonaia ez da izaki fantastiko bat, ezta beste edozein ere.




Liburuetan mezua edo ideia transmititzeko bi modu daude, irudien edo testuen bidez. Beraz, hurren beldurrei buruzko 37 liburuak aztertu ondoren, 34 lanetan irudiak erabili dituzte beldurra irudikatzeko. Bestalde, 17 aldiz irudikatu da testuaren bidez. 34 obratan irudiak irudikapen moduan eta 17tan testua erabiltzen dutela ikustean, esan behar da lan askotan ez dutela modu bat edo bestea bakarrik erabili, baizik eta bai irudian, bai testuan oinarritu direla beldurra irudikatzeko orduan; horregatik, irudikatzeko moduen kopurua liburuena baino handiagoa da. Baina azterketa horren ondorio gisa ateratzen dut irudia oso garrantzitsua dela haurrentzako liburuetan, batzuetan testua baino gehiago, azterketa honetan betetzen dela ikusten da, irudiak testuak baino protagonismo handiagoa baitu.



Beldurra irudien bidez irudikatzen den obretan, 37 obratik 29 obratan pertsonai errealetan irudikatzen da. Hau da, beldurra pertsonen aurpegian islatuta ikusten da eta egiten dituzten gorputz keinuetan. Itzala eta izaki imajinarioak obra kopuru berean erabili dira, 12 obratan. Itzala beldurraren errepresentazio moduan erabiltzen duten lanetan, gehiegi nabarmentzen da itzala, eta objektu baten itzala munstro baten itzal bihurtzen dute beldurraren mezua areagotzeko. Izaki imajinarioak beldurraren irudikapen gisa erabiltzen dituzten beste obretan, gehienetan munstroen irudiak erabiltzen dituzte. Azkenik, 11 obratan, beldurra errerepresentatzeko objektuak erabiltzen dituzte, hala nola leiho bateko gortinak mugitzen, autoa jotzen, trumoiak, panpinak izutuen aurpegiarekin, etab.

Beldurra adierazteko erabiltzen diren elementuen kopuruak obrena gaintzen du, horietako batzuetan beldurra modu bat baino gehiagotan irudikatzen baita.



21 obratan ez da iluntzen beldurraren irudia. Hau da, ez da aldatzen liburuaren hasieratik amaieraraino beldurra adierazteko erabiltzen diren koloreen tonalitatea. Beraz, koloreen tonuak mantendu egiten dira obran zehar, eta aldatuz gero, ez du iluntzen beldur gehiago islatzeko. Gainerako 16 obretan, beldur gehiago adierazteko kolore ilunak erabiltzen ditu. 16 horietatik, obra 1ean kolore ilunak erabiltzeaz gain, kolore gorriak ere erabiltzen dira.

6. ONDORIOAK

Literaturaren bidez haurren beldurrei buruzko ikerketa egin ondoren, hainbat puntu ateratzen ditut ondorio gisa.

Hasteko, liburuen azterketa egin aurretik egiten nituen hipotesiak kontuan hartuta, esan behar dut puntu batzuetan oker nengoela, eta beste batzuetan, azterketa egin ondoren, nik uste nuen bezala zen.

Hasteko, beldurrei buruzko haur-liburuetan gehien errepikatzen den beldur motari dagokionez, hipotesietan esan dudan bezala, iluntasunarekiko beldurra eta munstroekiko beldurra dira. Hala ere, hipotesietan esan dudan bezala, uste nuen animalien beldurretik ez zela liburu asko egongo, eta gehien errepikatu den hirugarrena izan da. Hau da, 0 eta 6 urte bitarteko haurren artean gehien nabarmentzen den beldurra iluntasunaren eta munstroen beldurra da; beraz, beldurrak jorratzeko orduan, bi beldur-mota horietan sakondu eta haurrentzat duen garrantzia eman beharko litzaioke. Gainera, bi horiei buruz liburu asko daude liburutegian, eta horiek lagungarriak izan daitezke gainditzeko.

Bigarrenik, ipuinaren amaiera beldurra gainditzea zela uste nuen, liburuak aztertu eta gero, liburu guztien asmoa irakurleari beldurra gainditzen laguntzea dela esan dezaket. Beraz, kasu guztietan protagonistak bere beldurra gainditzen du. Kasu honetan, nire ikuspuntutik, mota guztietako amaierak dituzten liburuak egon beharko liratekeela uste dut, protagonista beldurra gainditzen duen amaiera duten liburuetatik hasi eta protagonistak gainditzen ez dituen liburuetaraino. Izan ere, umeari laguntzeko modu bakarra ez da bakarrik protagonistak beldurra nola gainditzen duen ikustea, baizik eta ikustea eta ulertzea beldur horiek adin horrekin izatea normala dela eta ez dela ezer gertatzen beldur horiek edukitzeagatik, jende guztiak beldurra duela eta denborarekin gainditu egiten dela.

Hirugarrenik, hipotesietan jarri nuen protagonistak beldurra gainditzeko gehienetan senide baten laguntza izango zuela. Kasu honetan, azterketan lortutako emaitzekin alderatuta, protagonistak beldurra bakarrik gainditzen duen eta senide baten laguntza jasotzen duen liburu kopuru bera dago. Beraz, ondorio gisa ateratzen dut mezu honekin liburuek haurra bere kabuz gainditzeko gai izatera bultzatu nahi dutela.

Laugarrenik, protagonistari buruz, azterketa egin aurretik neukan ideia bera zen, eta liburu gehienetan haurra da protagonista, berari zuzenduta baitago horrelako liburuak. Animaliak ere liburu askoren protagonistak dira, eta hemen ikusten dut, lehen aipatu dudan bezala, animaliak hurrei beldurra eragiten dien zerbait izan arren, askotan protagonista bezala ere ikusten dugula. Hori oso egokia iruditzen zait; modu horretan, irakurleak animaliarekin enpatia sor dezake eta, horrela, animalianganako duen beldurrari garrantzia kendu.

Bosgarrenik, hipotesietan esan nuen bezala, eta analisisian baieztatzen dudanez, irudiak testua baino gehiago erabiltzen dira beldurra adierazteko. Nahiz eta azterketa egin aurretik pentsatu munstroen bidez errepresentatuko zela gehien, eta analisisian kusi dut benetako pertsonaiaetan ikusten dela gehien beldurra. Beraz, pertsonai errealetan ikusten da beldur direla gehien. Nire ustez, modu honetan liburuak errealitatera gehiago hurbiltzen dira, bizitza errealean beldurra dugunean gure aurpegieta, jarreretan eta keinuetan irudikatzen dugulako.

Azkenik, azterketa egin aurretik, uste nuen beldurra irudikatzeko, kolore iluna eta gero gorria nabarmenduko zela. Baina okertuta nengoen, liburu gehienetan ez baitute irudiaren kolorea erabiltzen beldurra adierazteko. Hau da, bai batzuetan irudia iluntzen dute, une horretan protagonista beldur dela argiago ikusteko, baina kasu gehiagotan ez.

Hipotesien eta emaitzen konparazioaz gain, aurrez haur literaturari buruz egin diren eta esparru teorikoan aipatu ditudan lanekin alderatuta, oso beharrezkoa da txikitatik literaturak haurren gozamenerako eta beldurra bezalako gaiak lantzeko. Horrela, haurrek ulertu ahal izango dute zergatik sentitzen diren horrela, identifikatuta sentituko dira, lagungarri izango zaie beldurrei aurre egiteko, gertuko pertsonengan laguntza bilatuko dute gainditzeko... Beraz, familiek eta irakasleek emozio horri garrantzia eman eta etxean eta ikastetxean lan egitea gomendagarria litzatekeela uste dut. Hurrekin irakurtzea oso lagungarria izango zaie, eta, gainera, jarduera bat elkarrekin partekatzeko eta gozatzeko modu bat da.

7. HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Lana amaitzeko, lanean zehar sortu zaizkidan zailtasunetan murgilduko naiz, eta, bestalde, hobetu daitezkeen gauzetan.

Alde batetik, izan ditudan mugei dagokienez, emozioei buruzko informazio asko aurkitu dut. Baina nire gai zehatzari dagokionez, beldurra, hain zuzen ere, zaila izan zait askotan informazioa aurkitzea. Izan ere, oso ikerketa edo lan gutxitan aztertu dira liburu kopuru bat beldurrari buruzko ondorioak ateratzeko.

Literaturak gai desberdinetarako duen garrantziari buruzko informazio asko aurkitu badut ere eta tresna ona dela baieztatu badut ere, beldurrari buruzko haur-liburu gehiago aztertu beharko liratekeela uste dut. Gai hau alderatu eta aurrera egin ahal izateko eta haurren beldurrak gainditzeko lagunduko duen informazio zabalagoa eta lagungarriagoa izateko.

Bestalde, hobetu daitezkeen gauzei dagokienez, norbaitek liburuen bidez haurren beldurrei buruzko gradu amaierako lan bat egitea erabakitzen badu, bere ikerketa praktikara eramatea gomendatuko nioke. Hau da, praktiketan aztertutako liburu batzuk irakurtzea. Nire kasuan, ezin izan ditut gauzatu, urtebeteko haur-eskola batean egin ditudalako. Baina interesgarria eta komenigarria izan daiteke aztertutako liburuak haurrekin aurrera eramatea, haien erantzunak ikusteko eta ondorio zehatzagoak ateratzeko.

8. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Arellano Yanguas, V. (2008). El álbum ilustrado: un género en alza. *Literaturas. com. Diciembre 2008*.
- Ávila, A. eta Fullana, M. (2016). El miedo en el cerebro humano .La sensación de temor depende de una compleja red cerebral, de la amígdala, como se pensaba hasta ahora. *Mente y cerebro*, 78, 50-51.
- Colomer, T. (2002, Org.). *Siete Llaves para Valorar las Historias Infantiles*. Madrid: Fundación Germán Sánchez Ruipérez.
- Caso Dochado, E. (2014). *Los cuentos y el miedo en Educación Infantil*. Universidad de Valladolid. Escuela de Ingenierías Industriales. Valladolid.
- Díaz Beltrán, A., Díaz Beltrán, E., eta Rojas Suárez, K. (2014). Estrategias de lectura de cuentos de monstruos para favorecer el manejo del miedo en los niños de primaria. *Actualidades Pedagógicas*, 1(63), 61-81.
- Etxaniz, X. (1997). *Haur eta gazte literatura: kontzeptuaren definizio baten bila*. Pamiela.
- Etxaniz, X. (1992) Haur literaturaren inguruan, in Askoren Artean, *Haur literatura*. Udako Euskal Unibertsitatea.
- Ferland, F. (2011). *Cuéntame un cuento ¿por qué? ¿cómo? ¿cuándo? ¿qué historia?*. Narcea.
- FRANKARD, A., Van Nieuwenhoren, C., Aucouturier, B., Danneels, P. eta Dezutter, O. (2004). *Miedo a nada... Miedo a todo...: El niño y sus miedos*. Grao.
- Fundación Germán Sánchez Ruipérez. (2006). Centro Internacional del Libro Infantil y Juvenil. Área de Documentación. *Los miedos infantiles en la literatura para niños* (Ser. Colección temas en la literatura infantil y juvenil, nº 3).
- González, V. (2018). Conmishijos. *Miedos de los niños. Ayudarles a superar sus temores*. [Mezua blog batean]. Hemendik berreskuratuta: [Miedos de los niños. Ayudarles a superar sus temores \(conmishijos.com\)](http://miedosde los niños. Ayudarles a superar sus temores (conmishijos.com))
- La Razón. (2019). Los padres españoles deberían aprender de (y con) a disfrutar de los cuentos y de la lectura. Hemendik berreskuratuta: [Los padres españoles deberían aprender de \(y con\) sus hijos a disfrutar de los cuentos y de la lectura \(larazon.es\)](http://los padres españoles deberían aprender de (y con) sus hijos a disfrutar de los cuentos y de la lectura (larazon.es))
- López, C. (2008). Lectura integrada: valores y funciones de las relaciones adulto-niño en algunos álbumes ilustrados. *Casa da leitura*, 1-13.
- López, M. (2009). El libro álbum: definición y peculiaridades. *Sincronía*, (52), 8.
- Macías, M. (2010). Los beneficios de la literatura infantil. *Revista digital para profesionales de la enseñanza*, 8, 1-6.
- Marina, J. (2012). Los miedos infantiles. *Pediatr Integral*, 16(2), 171-174.
- Martínez, M. (1990). Los miedos en el niño: Aspectos teóricos y un estudio directo. *Aula: Revista de Pedagogía de la Universidad de Salamanca*, (3), 29-44.
- Medina, J., González, A., Tagle, D., Fuentes, N. eta Escobar, S. (2010). Tipos de miedo más frecuentes en niños de primaria: Un análisis por sexo. *Psicología Iberoamericana*, 18(1), 47-55.

- Méndez, F., Inglés, C., Hidalgo, M., García-Fernández, J. eta Quiles, M. (2003). Los miedos en la infancia y la adolescencia: un estudio descriptivo. *Revista Electrónica de Motivación y Emoción*, 6(13), 150-163.
- Nobile, A. (1992). *Literatura infantil y juvenil*. Morata.
- Pelechano, V. (2007). Miedos en adultos: Estructura, evolución y correlatos. *Análisis y modificación de conducta*, 33(149).
- Pérez García, N. (2021). *Los cuentos infantiles como vía para trabajar las emociones y fomentar el aprendizaje cooperativo*. (Gradu amaierako lana). Universidad de Valladolid. Facultad de Educación y Trabajo Social. Valladolid.
- Pérez Grande, M. (2000). El miedo y sus trastornos en la infancia. Prevención e intervención educativa. *Revista de Pedagogía de la Universidad de Salamanca*, (12), 123-144.
- Primera, C. (2006). *Los miedos infantiles en la literatura para niños*. Asociación para la Salud Mental Infantil desde la Gestación.
- Gómez, E., Daza, A., Angeles, S. eta Barbabosa, R. (2021). *PSICOLOGIA DEL MIEDO*. Boletín de la Universidad de Granada. Universidad de Granada.
- Riquelme, E. eta Munita, F. (2011). La lectura mediada de literatura infantil como herramienta para la alfabetización emocional. *Estudios pedagógicos (Valdivia)*, 37(1), 269-277.
- Ruiz-Lozano, M. eta Gómez-Ferrer-Górriz, C. (2000). Los miedos normales en los niños: guía de uso. Guía para padres. Consejería de sanidad y consumo.
- Sánchez Ruiz, Y. (2016). *La función catártica de la literatura infantil; Tratamiento del miedo*. (Gradu amaierako lana). Universidad de Sevilla. Sevilla.
- Senís, J. (2014). El álbum ilustrado como agente de educación artístico-literaria y de género el caso de Mamá, de Mariana Ruíz Johnson. *Dossiers feministes*, (19), 115-133.
- Valiente, R., Sandín, B., Chorot, P. eta Tabar, A. (2003). Diferencias según la edad en la prevalencia e intensidad de los miedos durante la infancia y la adolescencia: datos basados en el FSSC-R. *Psicothema*, 15(3), 414-419.
- Zabaleta Juantorena, O. (2019). *Munduko ipuinak eta emozioen mundua lehen hezkuntzan*. (Gradu amaierako lana). Universidad pública de Navarra, Facultad de Ciencias Sociales y Humanas. Navarra.
- Zubeldia, I. (2009). Zer da literatura? Zer daukagu Haur Literaturaren kontra?. *EGAN*, 62(3-4).
- Zubeldia, I. (2014). Bitartekariak haur literaturan. *EGAN*, 67(3-4).

9. ERANSKINAK

1. ERANSKINA

<u>DATUEN FITXA</u>		
LIBURUAREN IZENBURUA		
LILI PRINTZESA TXIKIA ESKOLAN BELDURTIA		
EGILEA	ARGITALETXEA	URTEA
Carmen Villanueva eta Paul Caballero	FORTUNA	2016
LABURPENA		
Liburu honen protagonista erle txiki bat da, Lili deitzen dena. Eskola hasteko momentu ailegatzan da eta Liliri beldur da. Ez du nahi eskolara joatea eta bere gurasoengandik banantzea.		
GAIA		
Eskola hasteko beldurra		

<u>BELDUR MOTA</u>	
BELDURRA ILUNTASUNARI, GAUARI ETA EKAITZEI	
BELDURRA AMESGAIZTOEI	
BELDURRA MUNTRO ETA BESTE IZAKI IMAJINARIOEI	
BELDURRA ANIMALIEI	
BELDURRA EZEZAGUNARI	
BELDUR INTIMO ETA PERTSONALAK	
BELDURRA GIZARTEAN	x
Oharrak: Eskolara joatean bere gurasoak ez direla bere bila etorriko pentsatzen du, baita eskolan egongo diren ikasleen jarrera nolako izango ote den kezkatzen dio.	

<u>AMAIERA</u>	
HASIERAKO BELDURRA AREGOTZEN DA	
EZ DA ONARTZEN BELDURRA	

BESTE BELDUR BATEN SORRERA					
GAINDITZEN DA BELDURRA		x			
<u>NOLA ONARTZEN DU?</u>					
Familiako kide baten laguntzarekin	Animali baten laguntzarekin	Izaki fantastiko baten laguntzarekin	Bera bakarrik	Ezezagun baten laguntzarekin	Beste bat
	x		x		
Oharrak:					
Beldurra berak bakarrik gainditzen duen arren, zurigorri maitagarriak emandako harriek ematen dioten segurtasuna du lagungarri.					

<u>NOR DA BELDUR?</u>	
HAUR BAT	
HELDU BAT	
IZAKI FANTASTIKO BAT	
ANIMALIA BAT	x
BIZIA EZ DUEN OBJETU BAT	
BESTE BAT	
Oharrak:	

<u>BELDURRAREN ERREPRESENTAZIOA</u>	
<u>IRUDI BATEN BIDEZ</u>	<u>TESTUAREN BIDEZ</u>
x	x
<u>Irudian zeren bidez errepresentatzen da beldurra?</u>	
IZAKI IMAJINARIOAK	
PERTSONAI ERREALETAN	x
ITZALA	
OBJEKTUAK	
BESTE BAT	
Oharrak: Liliren aurpegian beldur dela ikusten da.	

<u>IRUDIAREN KOLOREA</u>		
<u>Kolore ilunak</u>	<u>Kolore gorrixkak</u>	<u>Ez da iluntzen beldurraren irudia</u>
		X
Oharrak: Ez dira kolore desberdinak erabiltzen beldurra errepresentatzeko. Hau da, liburuan zehar agertzen diren kolore sorta mantentzen da.		

2. ERANSKINA

<u>DATUEN FITXA</u>		
LIBURUAREN IZENBURUA		
Karlota Marmota oheratzeko orduan adar-joka		
EGILEA	ARGITALETXEA	URTEA
Carmen Villanueva eta Paul Caballero	FORTUNA	2015
LABURPENA		
Liburu honen protagonista Marmota txiki bat da, Karlota deitzen dena. Oso zoriontsu bizi da, baina gauez beldur da, bakarrik lo egin nahi ez duelako. Karlota beldur da azeri bat gauean agertu ote den.		
GAIA		
Gaua sorrazten duen beldurra azeriari		

<u>BELDUR MOTA</u>	
BELDURRA ILUNTASUNARI, GAUARI ETA EKAITZEI	X
BELDURRA AMESGAIZTOEI	
BELDURRA MUNSTRO ETA BESTE IZAKI IMAJINARIOEI	
BELDURRA ANIMALIEI	X
BELDURRA EZEZAGUNARI	
BELDUR INTIMO ETA PERTSONALAK	
BELDURRA GIZARTEAN	
Oharrak: Karlota lo egiterako orduan, iluntasunean geratzen denean, azeria bat agertuko dela pentsatzen du. Eta horrek beldurra ematen dio.	

<u>AMAIERA</u>					
HASIERAKO BELDURRA AREGOTZEN DA					
EZ DA ONARTZEN BELDURRA					
BESTE BELDUR BATEN SORRERA					
GAINDITZEN DA BELDURRA		x			
<u>NOLA ONARTZEN DU?</u>					
Familiako kide baten laguntzarekin	Animali baten laguntzarekin	Izaki fantastiko baten laguntzarekin	Bera bakarrik	Ezezagun baten laguntzarekin	Beste bat
	x				
Oharrak: Karlota beldurra gaintitzen du, azeri baten laguna egiten denean eta azeri horrek azeriak onak direla erakusten dionean.					

<u>NOR DA BELDUR?</u>	
HAUR BAT	
HELDU BAT	
IZAKI FANTASTIKO BAT	
ANIMALIA BAT	x
BIZIA EZ DUEN OBJETU BAT	
BESTE BAT	
Oharrak:	

<u>BELDURRAREN ERREPRESENTAZIOA</u>	
<u>IRUDI BATEN BIDEZ</u>	<u>TESTUAREN BIDEZ</u>
x	x
<u>Irudian zeren bidez errepresentatzen da beldurra?</u>	
IZAKI IMAJINARIOAK	
PERTSONAI ERREALETAN	x
ITZALA	
OBJEKTUAK	
BESTE BAT	

Oharrak: Testuaren bidez, deskribatzen du zer beldur daukan. Irudiaren bidez, Karlotaren aurpegian ikusten da beldur dela.		
<u>IRUDIAREN KOLOREA</u>		
<u>Kolore ilunak</u>	<u>Kolore gorrixkak</u>	<u>Ez da iluntzen beldurraren irudia</u>
		x
Oharrak: Ez dira kolore desberdinak erabiltzen beldurra errepresentatzeko. Hau da, liburuan zehar agertzen diren kolore sorta mantentzen da.		

3. ERANSKINA

<u>DATUEN FITXA</u>		
LIBURUAREN IZENBURUA		
Munstro bat ohe azpian		
EGILEA	ARGITALETXEA	URTEA
Angelika Glitz eta Imke Sönnichsen	TTARTALO	2005
LABURPENA		
Liburu honen protagonistak haur bat eta bere ama dira. Haur honek pentsatzen du munstro bat dagoela bere ohe azpian eta honetaz beldur da. Baina bere ama beste beldur du ere, sagutxoei beldur da.		
GAIA		
Hurren eta helduen beldurrak		

<u>BELDUR MOTA</u>	
BELDURRA ILUNTASUNARI	
BELDURRA AMESGAIZTOEI	
BELDURRA MUNSTRO ETA BESTE IZAKI IMAJINARIOEI	x
BELDURRA ANIMALIEI	x
BELDURRA EZEZAGUNARI	
BELDUR INTIMO ETA PERTSONALAK	
BELDURRA GIZARTEAN	
Oharrak: Amaren beldurra saguak dira eta haurrarena munstroak.	

<u>AMAIERA</u>					
HASIERAKO BELDURRA AREGOTZEN DA					
EZ DA ONARTZEN BELDURRA					
BESTE BELDUR BATEN SORRERA					
GAINDITZEN DA BELDURRA		x			
<u>NOLA ONARTZEN DU?</u>					
Familiako kide baten laguntzarekin	Animali baten laguntzarekin	Izaki fantastiko baten laguntzarekin	Bera bakarrik	Ezezagun baten laguntzarekin	Beste bat
x					
Oharrak: Haurra eta ama haien beldurrak gainditzen dituzte elkarrekin.					

<u>NOR DA BELDUR?</u>	
HAUR BAT	x
HELDU BAT	x
IZAKI FANTASTIKO BAT	
ANIMALIA BAT	
BIZIA EZ DUEN OBJETU BAT	
BESTE BAT	
Oharrak: Hasieran, haurren beldurra, eta geroago, ama ere beldur dela ikusten dugu.	

<u>BELDURRAREN ERREPRESENTAZIOA</u>	
<u>IRUDI BATEN BIDEZ</u>	<u>TESTUAREN BIDEZ</u>
x	
<u>Irudian zeren bidez errepresentatzen da beldurra?</u>	
IZAKI IMAJINARIOAK	
PERTSONAI ERREALETAN	x
ITZALA	x

OBJEKTUAK	x	
BESTE BAT		
<p>Oharrak: Irudiaren bidez, haurraren eta amaren aurpegian eta gorputz keinuetan ikusten da beldur dela. Horretaz gain, zuhaitzaren eta ohearen itzalak agertzen dira, beldurra errepresentatzeko. Baita, kotxearen zarata beldurra areagotzeko eta haizea pertsiana mugitzen du, beldurra emateko. Azkenik, ohearen azpian begi bakar batzuk ikusten dira, iluntasunez inguratuta.</p>		
<u>IRUDIAREN KOLOREA</u>		
<u>Kolore ilunak</u>	<u>Kolore gorrixkak</u>	<u>Ez da iluntzen beldurraren irudia</u>
x		
<p>Oharrak: Itzalak, pertsianak eta ohe azpian dagoena ilunak dira.</p>		

4. ERANSKINA

<u>DATUEN FITXA</u>		
LIBURUAREN IZENBURUA		
Jonas eta hozkailu beldurtia		
EGILEA	ARGITALETXEA	URTEA
Juan Kruz Igerabide	Aizkorri	1998
LABURPENA		
<p>Jonas haur txiki bat da eta liburu honen protagonista etxean bakarrik geratzean, beldur da. Gainera, hozkailua beldur dagoela otso bat bere barruan dagoelako pentsatzen du.</p>		
GAIA		
Beldurra bakardadeari		

<u>BELDUR MOTA</u>	
BELDURRA ILUNTASUNARI, GAUARI ETA EKAITZEI	
BELDURRA AMESGAIZTOEI	
BELDURRA MUNSTRO ETA BESTE IZAKI IMAJINARIOEI	
BELDURRA ANIMALIEI	x
BELDURRA EZEZAGUNARI	

BELDUR INTIMO ETA PERTSONALAK	x
BELDURRA GIZARTEAN	
Oharrak: Haurra etxean bakarrik geratzen denean beldur da. Eta hozkailuaren barruan otsoa bat dagoela imajinatzen du eta hori imajinatzean askoz gehiago beldurtzen da.	

<u>AMAIERA</u>					
HASIERAKO BELDURRA AREGOTZEN DA					
EZ DA ONARTZEN BELDURRA					
BESTE BELDUR BATEN SORRERA					
GAINDITZEN DA BELDURRA		x			
<u>NOLA ONARTZEN DU?</u>					
Familiako kide baten laguntzarekin	Animali baten laguntzarekin	Izaki fantastiko baten laguntzarekin	Bera bakarrik	Ezezagun baten laguntzarekin	Beste bat
x					
Oharrak: Jonasek beldurra gainditzen du ama etxera bueltatzen denean eta otsorik ez dagoela erakusten dionean.					

<u>NOR DA BELDUR?</u>	
HAUR BAT	x
HELDU BAT	
IZAKI FANTASTIKO BAT	
ANIMALIA BAT	
BIZIA EZ DUEN OBJETU BAT	
BESTE BAT	
Oharrak:	

<u>BELDURRAREN ERREPRESENTAZIOA</u>
--

<u>IRUDI BATEN BIDEZ</u>		<u>TESTUAREN BIDEZ</u>	
x		x	
<u>Irudian zeren bidez errepresentatzen da beldurra?</u>			
IZAKI IMAJINARIOAK			
PERTSONAI ERREALETAN		x	
ITZALA			
OBJEKTUAK		x	
BESTE BAT			
<p>Oharrak: Testuaren bidez Jonasen kezka eta nola eragiten dion deskribatzen du. Irudiaren bidez, haurren aurpegian eta gorputz keinuetan ikusten da beldur dela. Baita bere irudiaren inguruan iluntasuna agertzen da, eta objektuetan ere.</p>			
<u>IRUDIAREN KOLOREA</u>			
<u>Kolore ilunak</u>	<u>Kolore gorrixkak</u>	<u>Ez da iluntzen beldurraren irudia</u>	
x			
<p>Oharrak: Baita bere irudiaren inguruan iluntasuna agertzen da, beldur denean sukaldeko objektu batzuk hasieran baino ilunagoak agertzen dira eta protagonistaren irudia ere.</p>			

5. ERANSKINA

<u>DATUEN FITXA</u>		
LIBURUAREN IZENBURUA		
Beeeldur naiz		
EGILEA	ARGITALETXEA	URTEA
Asun Egurza, Leticia Garcés eta Ainara Mendoza	Ibaizabal	2014
LABURPENA		
Ardi bat liburu honen protagonista da, eta, gau batean basoan bakarrik galtzen da eta dena ilunez dagoenez beldur da.		
GAIA		
Iluntasunari beldurra		

<u>BELDUR MOTA</u>

BELDURRA ILUNTASUNARI, GAUARI ETA EKAITZEI	x
BELDURRA AMESGAIZTOEI	
BELDURRA MUNSTRO ETA BESTE IZAKI IMAJINARIOEI	
BELDURRA ANIMALIEI	
BELDURRA EZEZAGUNARI	
BELDUR INTIMO ETA PERTSONALAK	
BELDURRA GIZARTEAN	
Oharrak:	

<u>AMAIERA</u>					
HASIERAKO BELDURRA AREGOTZEN DA					
EZ DA ONARTZEN BELDURRA					
BESTE BELDUR BATEN SORRERA					
GAINDITZEN DA BELDURRA		x			
<u>NOLA ONARTZEN DU?</u>					
Familiako kide baten laguntzarekin	Animali baten laguntzarekin	Izaki fantastiko baten laguntzarekin	Bera bakarrik	Ezezagun baten laguntzarekin	Beste bat
	x				
Oharrak: hontza baten laguntza izaten du beldurra gainditzeko.					

<u>NOR DA BELDUR?</u>	
HAUR BAT	
HELDU BAT	
IZAKI FANTASTIKO BAT	
ANIMALIA BAT	x
BIZIA EZ DUEN OBJETU BAT	
BESTE BAT	
Oharrak:	

<u>BELDURRAREN ERREPRESENTAZIOA</u>		
<u>IRUDI BATEN BIDEZ</u>		<u>TESTUAREN BIDEZ</u>
		x
<u>Irudian zeren bidez errepresentatzen da beldurra?</u>		
IZAKI IMAJINARIOAK		
PERTSONAI ERREALETAN		
ITZALA		
OBJEKTUAK		
BESTE BAT		
Oharrak: Testuaren bidez ardia beldur dagoela kontatzen du.		
<u>IRUDIAREN KOLOREA</u>		
<u>Kolore ilunak</u>	<u>Kolore gorrixkak</u>	<u>Ez da iluntzen beldurraren irudia</u>
		x
Oharrak:		

6. ERANSKINA

<u>DATUEN FITXA</u>		
LIBURUAREN IZENBURUA		
Amets Gaizto nire armairuan		
EGILEA	ARGITALETXEA	URTEA
Mercer Mayer	Kalandraka	2020
<u>LABURPENA</u>		
Haur batek ametsgaiztoa dauka bere armairuan dagoen munstroa imaginatuz, beraz beldurrarekin bukatzea erabakitzen du.		
<u>GAIA</u>		
Munstroaren ametsgaiztoaren beldurrari aurre egitea		

<u>BELDUR MOTA</u>	
BELDURRA ILUNTASUNARI, GAUARI ETA EKAITZEI	
BELDURRA AMESGAIZTOEI	x

BELDURRA MUNSTRO ETA BESTE IZAKI IMAJINARIOEI	x
BELDURRA ANIMALIEI	
BELDURRA EZEZAGUNARI	
BELDUR INTIMO ETA PERTSONALAK	
BELDURRA GIZARTEAN	
Oharrak: Haur honek amets gaiztoak izaten ditu munstroekin	

<u>AMAIERA</u>					
HASIERAKO BELDURRA AREGOTZEN DA					
EZ DA ONARTZEN BELDURRA					
BESTE BELDUR BATEN SORRERA					
GAINDITZEN DA BELDURRA		x			
<u>NOLA ONARTZEN DU?</u>					
Familiako kide baten laguntzarekin	Animali baten laguntzarekin	Izaki fantastiko baten laguntzarekin	Bera bakarrik	Ezezagun baten laguntzarekin	Beste bat
			x		
Oharrak:					

<u>NOR DA BELDUR?</u>	
HAUR BAT	x
HELDU BAT	
IZAKI FANTASTIKO BAT	
ANIMALIA BAT	
BIZIA EZ DUEN OBJETU BAT	
BESTE BAT	
Oharrak:	

<u>BELDURRAREN ERREPRESENTAZIOA</u>
--

<u>IRUDI BATEN BIDEZ</u>		<u>TESTUAREN BIDEZ</u>
x		
<u>Irudian zeren bidez errepresentatzen da beldurra?</u>		
IZAKI IMAJINARIOAK		x
PERTSONAI ERREALETAN		x
ITZALA		
OBJEKTUAK		
BESTE BAT		
<p>Oharrak: Irudiaren bidez, munstroen bidez beldurra errepresentatzen da. Eta, pertsonaiaren aurpegian eta gorputzarekin egiten dituen mugimenduetan. Baita, pertsonien mugimenduak beldurra ikusten da islatuta.</p>		
<u>IRUDIAREN KOLOREA</u>		
<u>Kolore ilunak</u>	<u>Kolore gorrixkak</u>	<u>Ez da iluntzen beldurraren irudia</u>
x		
Oharrak:		

7. ERANSKINA

<u>DATUEN FITXA</u>		
LIBURUAREN IZENBURUA		
Gazela txikia beldur da		
EGILEA	ARGITALETXEA	URTEA
Marion Billet	TTARTALO	2018
LABURPENA		
Gazela txikia lasterketa bat egiten du bere amarekin eta galtzen da. Galtzean, beldur handia sentitzen du ez duelako bere ama aurkitzen.		
GAIA		
Ama gabe egotearen beldurra		

<u>BELDUR MOTA</u>	
BELDURRA ILUNTASUNARI, GAUARI ETA EKAITZEI	
BELDURRA AMESGAIZTOEI	

BELDURRA MUNSTRO ETA BESTE IZAKI IMAJINARIOEI	
BELDURRA ANIMALIEI	
BELDURRA EZEZAGUNARI	
BELDUR INTIMO ETA PERTSONALAK	x
BELDURRA GIZARTEAN	
Oharrak:	

<u>AMAIERA</u>					
HASIERAKO BELDURRA AREGOTZEN DA					
EZ DA ONARTZEN BELDURRA					
BESTE BELDUR BATEN SORRERA					
GAINDITZEN DA BELDURRA		x			
<u>NOLA ONARTZEN DU?</u>					
Familiako kide baten laguntzarekin	Animali baten laguntzarekin	Izaki fantastiko baten laguntzarekin	Bera bakarrik	Ezezagun baten laguntzarekin	Beste bat
	x				
Oharrak: Animalia batek gazela txikiaren ama aurkitzen laguntzen dio.					

<u>NOR DA BELDUR?</u>	
HAUR BAT	
HELDU BAT	
IZAKI FANTASTIKO BAT	
ANIMALIA BAT	x
BIZIA EZ DUEN OBJETU BAT	
BESTE BAT	
Oharrak:	

<u>BELDURRAREN ERREPRESENTAZIOA</u>		
<u>IRUDI BATEN BIDEZ</u>		<u>TESTUAREN BIDEZ</u>
x		
<u>Irudian zeren bidez errepresentatzen da beldurra?</u>		
IZAKI IMAJINARIOAK		
PERTSONAI ERREALETAN		x
ITZALA		
OBJEKTUAK		
BESTE BAT		
Oharrak: Gazela txikiaren aurpegian beldur dela ikusten da.		
<u>IRUDIAREN KOLOREA</u>		
<u>Kolore ilunak</u>	<u>Kolore gorrixkak</u>	<u>Ez da iluntzen beldurraren irudia</u>
		x
Oharrak: Ez dira kolore desberdinak erabiltzen beldurra errepresentatzeko. Hau da, liburuan zehar agertzen diren kolore sorta mantentzen da.		

8. ERANSKINA

<u>DATUEN FITXA</u>		
LIBURUAREN IZENBURUA		
Nik munstroak akabatuko ditut zugatik		
EGILEA	ARGITALETXEA	URTEA
Santi Balmes eta Lyona	PRINCIPAL	2019
LABURPENA		
Martinak ezin du gauetan lo egin beldur delako. Bere ustez, burua beherantz daramaten munstro koloredunak bizi diren mundua ezkututzen da lurraren azpian. Lurraren beste aldean, Anitram haur-munstroa beldur da bere ohe azpian dagoen munduaz.		
GAIA		
Munstroari beldurra		

<u>BELDUR MOTA</u>	
BELDURRA ILUNTASUNARI, GAUARI ETA EKAITZEI	x

BELDURRA AMESGAIZTOEI	
BELDURRA MUNSTRO ETA BESTE IZAKI IMAJINARIOEI	x
BELDURRA ANIMALIEI	
BELDURRA EZEZAGUNARI	
BELDUR INTIMO ETA PERTSONALAK	
BELDURRA GIZARTEAN	
Oharrak: Martina gauean beldur da eta munstroak bere ohe azpian daudela imajinatzen du.	

<u>AMAIERA</u>					
HASIERAKO BELDURRA AREGOTZEN DA					
EZ DA ONARTZEN BELDURRA					
BESTE BELDUR BATEN SORRERA					
GAINDITZEN DA BELDURRA		x			
<u>NOLA ONARTZEN DU?</u>					
Familiako kide baten laguntzarekin	Animali baten laguntzarekin	Izaki fantastiko baten laguntzarekin	Bera bakarrik	Ezezagun baten laguntzarekin	Beste bat
x					
Oharrak:					

<u>NOR DA BELDUR?</u>	
HAUR BAT	x
HELDU BAT	
IZAKI FANTASTIKO BAT	
ANIMALIA BAT	
BIZIA EZ DUEN OBJETU BAT	
BESTE BAT	
Oharrak:	

<u>BELDURRAREN ERREPRESENTAZIOA</u>		
<u>IRUDI BATEN BIDEZ</u>		<u>TESTUAREN BIDEZ</u>
x		x
<u>Irudian zeren bidez errepresentatzen da beldurra?</u>		
IZAKI IMAJINARIOAK		x
PERTSONAI ERREALETAN		
ITZALA		
OBJEKTUAK		
BESTE BAT		
Oharrak:		
<u>IRUDIAREN KOLOREA</u>		
<u>Kolore ilunak</u>	<u>Kolore gorrixkak</u>	<u>Ez da iluntzen beldurraren irudia</u>
		x
Oharrak:		

9. ERANSKINA

<u>DATUEN FITXA</u>		
LIBURUAREN IZENBURUA		
Gau beldurgarria		
EGILEA	ARGITALETXEA	URTEA
Violeta Monreal	aizkorri	2001
LABURPENA		
Amaia eta Mikel gauari beldur dira eta Pinto, hau da, haien txakurra beldurra izango duelako pentsatuz, bere bila joaten dira.		
GAIA		
Gauari beldur		

<u>BELDUR MOTA</u>	
BELDURRA ILUNTASUNARI, GAUARI ETA EKAITZEI	x
BELDURRA AMESGAIZTOEI	

BELDURRA MUNSTRO ETA BESTE IZAKI IMAJINARIOEI	
BELDURRA ANIMALIEI	
BELDURRA EZEZAGUNARI	
BELDUR INTIMO ETA PERTSONALAK	
BELDURRA GIZARTEAN	
Oharrak:	

<u>AMAIERA</u>					
HASIERAKO BELDURRA AREGOTZEN DA					
EZ DA ONARTZEN BELDURRA					
BESTE BELDUR BATEN SORRERA					
GAINDITZEN DA BELDURRA		x			
<u>NOLA ONARTZEN DU?</u>					
Familiako kide baten laguntzarekin	Animali baten laguntzarekin	Izaki fantastiko baten laguntzarekin	Bera bakarrik	Ezezagun baten laguntzarekin	Beste bat
x					
Oharrak: Beldur direnez, gurasoen ohera joaten dira.					

<u>NOR DA BELDUR?</u>	
HAUR BAT	x
HELDU BAT	
IZAKI FANTASTIKO BAT	
ANIMALI BAT	
BIZIA EZ DUEN OBJETU BAT	
BESTE BAT	
Oharrak: Anai arrebak diren bi haurrak; Amaia eta Mikel.	

<u>BELDURRAREN ERREPRESANTAZIOA</u>		
<u>IRUDI BATEN BIDEZ</u>		<u>TESTUAREN BIDEZ</u>
x		
<u>Irudian zeren bidez erreprezentatzen da beldurra?</u>		
IZAKI IMAJINARIOAK		
PERTSONAI ERREALETAN		
ITZALA		
OBJEKTUAK		x
BESTE BAT		
Oharrak: Tximistak, etxeak eta zerua beldurra erreprezentatzeko.		
<u>IRUDIAREN KOLOREA</u>		
<u>Kolore ilunak</u>	<u>Kolore gorrixkak</u>	<u>Beldurraren irudia ez da iluntzen</u>
x		
Oharrak:		

10. ERANSKINA

<u>DATUEN FITXA</u>		
LIBURUAREN IZENBURUA		
Ezkutatzea gustatzen zait		
EGILEA	ARGITALETXEA	URTEA
Rosa Gardá eta Rosa M. Curto	TTARTALO	2004
LABURPENA		
Bi hurrek gustuko dute ohe azpian ezkutatzea eta handik pasatzen diren pertsonen oinak ikustean, norenak diren oinak ez dituzte ezagutzen eta gauza aldatzen da.		
GAIA		
Ezezagunari beldurra		

<u>BELDUR MOTA</u>	
BELDURRA ILUNTASUNARI, GAUARI ETA EKAITZEI	
BELDURRA AMESGAIZTOEI	

BELDURRA MUNSTRO ETA BESTE IZAKI IMAJINARIOEI	
BELDURRA ANIMALIEI	
BELDURRA EZEZAGUNARI	x
BELDUR INTIMO ETA PERTSONALAK	
BELDURRA GIZARTEAN	
Oharrak:	

<u>AMAIERA</u>					
HASIERAKO BELDURRA AREGOTZEN DA					
EZ DA ONARTZEN BELDURRA					
BESTE BELDUR BATEN SORRERA					
GAINDITZEN DA BELDURRA		x			
<u>NOLA ONARTZEN DU?</u>					
Familiako kide baten laguntzarekin	Animali baten laguntzarekin	Izaki fantastiko baten laguntzarekin	Bera bakarrik	Ezezagun baten laguntzarekin	Beste bat
x					
Oharrak: Ama esaten dienean oin horiek bereak direla, bi haurren beldurra gainditzen dute.					

<u>NOR DA BELDUR?</u>	
HAUR BAT	x
HELDU BAT	
IZAKI FANTASTIKO BAT	
ANIMALIA BAT	
BIZIA EZ DUEN OBJETU BAT	
BESTE BAT	
Oharrak: Anai arreba diren bi haurrak	

<u>BELDURRAREN ERREPRESENTAZIOA</u>		
<u>IRUDI BATEN BIDEZ</u>		<u>TESTUAREN BIDEZ</u>
x		
<u>Irudian zeren bidez errepresentatzen da beldurra?</u>		
IZAKI IMAJINARIOAK		
PERTSONAI ERREALETAN		x
ITZALA		
OBJEKTUAK		
BESTE BAT		
Oharrak: Haurren aurpegian beldur direla nabaritzen da.		
<u>IRUDIAREN KOLOREA</u>		
<u>Kolore ilunak</u>	<u>Kolore gorrixkak</u>	<u>Beldurraren irudia ez da iluntzen</u>
		x
Oharrak:		

11. ERANSKINA

<u>DATUEN FITXA</u>		
LIBURUAREN IZENBURUA		
Olivia eta mamua		
EGILEA	ARGITALETXEA	URTEA
Elvira Lindo eta Emilio Urberuaga	Ikasmina	2021
LABURPENA		
Oheratzeko ordua da, baina Oliviari lo egitea denbora galtzea iruditzen zaio. Gainera, paretako itzalak mamu bat iruditzen zaizkio.		
GAIA		
Mamuei beldurra		

<u>BELDUR MOTA</u>	
BELDURRA ILUNTASUNARI, GAUARI ETA EKAITZEI	x
BELDURRA AMESGAIZTOEI	

BELDURRA MUNSTRO ETA BESTE IZAKI IMAJINARIOEI	x
BELDURRA ANIMALIEI	
BELDURRA EZEZAGUNARI	
BELDUR INTIMO ETA PERTSONALAK	
BELDURRA GIZARTEAN	
Oharrak: Gaua ailegatzan denean, Oliviak beldur da eta mamuak bere logelan daudela pentsatzen du.	

<u>AMAIERA</u>					
HASIERAKO BELDURRA AREGOTZEN DA					
EZ DA ONARTZEN BELDURRA					
BESTE BELDUR BATEN SORRERA					
GAINDITZEN DA BELDURRA		x			
<u>NOLA ONARTZEN DU?</u>					
Familiako kide baten laguntzarekin	Animali baten laguntzarekin	Izaki fantastiko baten laguntzarekin	Bera bakarrik	Ezezagun baten laguntzarekin	Beste bat
x					
Oharrak: Bere aitak berari txikitan gertatutakoa kontatzen dio beldurra gainditzen laguntzeko.					

<u>NOR DA BELDUR?</u>	
HAUR BAT	x
HELDU BAT	
IZAKI FANTASTIKO BAT	
ANIMALIA BAT	
